

**LAZARRAGA ETA BETOLAZAREN
IZEN MORFOLOGIAREN AZTERKETA**

GRADU AMAIERAKO LANA

Egilea: Mikel Sebasten Manso Ordeñana

Grada: Euskal Ikasketak

Ikasturtea: 2016/2017

Zuzendaria: Iñaki Camino Lertxundi

Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak

LABURPENA

Lan honetan Betolazaren eta Lazarragaren izen morfologia aztertu eta konparatu dira. Arabako euskararen azterketa berantiarra izan da, XX. mendera arte lekukotasun gutxi izan baitira. Betolazaren 1596ko doktrina luzaroan galdurik egon zen, eta haren autoretza eztabaidatua izan da. Orain dela hogeita hamar urte arte ez da jakin Arabako euskararen lekukotasuna dela, Bilbokotzat hartu izan baitzen. Bestalde, Lazarragaren eskuizkribua 2004 arte ezezaguna izan da, baina ordutik hona Arabako euskara ezagutzeko iturririk esanguratsuena izan da eskuizkribuaren antzinatasunagatik eta hedaturagatik. Betolazaren doktrina eta Lazarragaren eskuizkribua XVI. mende amaierakoak dira, eta elkarrengandik gertu dauden Araba iparraldeko Betolatza eta Larrea herrietakoak direnez, bereziki interesgarria suertatzen da konparaketa. Beraz, idazle hauen hizkerek ageri dituzten berezitasunak ezagutzeko asmoaz, izen morfologia hautatu da azterketa konparatiboa egiteko. Betolazaren doktrinaren luzerak gai honen hautapenean eragin du, idatzitako 14 orri dituen doktrinak eta haren edukiak ez baitute hizkuntzaren beste ezaugarri batzuen adibide nahikorik ageri.

Esan bezala, lan honen helburu nagusia Lazarraga eta Betolazaren izen morfologia aztertzea eta konparatzea da, batak eta besteak erakusten dituzten berezitasunak identifikatzeko eta Arabako euskararen ezagutzan aurrera egiteko. Helburu hau betetzeko, autore bakoitzaren artikulua eta deklinabide-atzizkien formak bildu dira, eta kasuaren arabera sailkatu dira. Kasu hauen formen deskribapena egin ondoren, azterketa konparatiborako interesgarrienak diren kasuak sakonki aztertu dira: ablatiboa, prosekutiboa, motibatiboa, soziatiboa eta instrumentala. Eraitzen analisia eta interpretazioa adituek eskainitako informazioaz osatu da, eta aurkitutako zenbait ezaugarri bereziren azalpen posibleak planteatzen dira.

Lan honek erakusten du Lazarraga eta Betolazaren deklinabide-atzizkiak oro har oso antzekoak direla. Soziatiboan eta ablatiboan aurkitu dira alderik nabarmenenak, eta berezitasun handiena ageri duen kasua motibatiboa dela antzeman da, bi idazleek forma berezi eta beretsuak ageri baitituzte. Horrez gain, bi autoreen testuetan, pluralaren berezko atzizkien gabezia aurkitu da zenbait kasuetan. Honen ondorioz, bi idazleen hizkeran forma plural hauek adierazteko zenbait bide erabiltzen direla erakutsi da.

Lan hau egitean zenbait galdera sortu dira, eta galdera hauei erantzun diezaieketen azalpen posibleak eman dira, nagusiki sozietiboaren eta instrumentalaren arteko nahasketa eta pluraltasunik erakusten ez duten atzizkien formen gainean.

AURKIBIDEA

1. Sarrera.....	5
2. Argibideak eta marko teorikoa.....	6
2.1. XVI. mende arteko euskal lekukotasunak.....	6
2.1.1. XVI. mende arteko Arabako euskararen lekukotasunak	6
2.2. Joan Perez Lazarragaren bizitza eta obra	8
2.3. Joan Perez Betolazaren bizitza eta obra	9
2.4. Lazarraga eta Betolazaren hizkeren kokapena.....	10
3. Lazarraga eta Betolazaren izen morfologiaren azterketa konparatiboa ...	13
3.1. Helburuak eta metodología.....	13
3.2. Datuen deskribapena eta analisia.....	14
3.2.1. Datuen deskribapena.....	14
3.2.1.1. Artikulua eta kasu markak.....	14
3.2.1.2. Postposizioak.....	15
3.2.2. Analisi konparatiboa	19
3.2.2.1. Ablatiboa.....	20
3.2.2.2. Prosekutiboa	21
3.2.2.3. Motibatiboa.....	23
3.2.2.4. Soziatiboa	25
3.2.2.5. Instrumentala	30
3.2.2.6. Pluralaren adierazpena zenbait atzizkitan	33
4. Ondorioak	39
5. Bibliografia	42

1. SARRERA

Gainerako euskal lurraldeetako euskararen aldean, Arabako euskara aski ezezaguna izan da, eta haren ikerketarik ez da egin 1958an Agudek eta Mitxelenak Landuchioren hiztegia argitaratu arte. Ordutik aurrera zenbait lekukotasun zahar aurkitu eta aztertu izan dira, hala nola 1982an aurkitutako Gamizena eta 1995an aurkitutako Garcia de Albenizena. 2004an aurkitutako Lazarragaren eskuizkribua Arabako euskara ezagutzeko lekukotasun oparoa izan da, testurik zaharrenetako bat izateaz gain, luzera handiko eskuizkribua delako. Eskuizkribua aurkitu aurretik Arabako euskarari buruz egindako ikerketek biltzen ez dituzten zenbait ezaugarri berri dakartza eskuizkribuak.

Betolazaren doktrina luzaroan galduta egon da eta 1900 arte ez zaio Betolazari egokitu autoretza. 1925ean Azkuek doktrina eskuratu eta argazkiak atera ondoren, Mitxelenak argitaratu zuen 1955ean. Alabaina, Bizkaiko, eta bereziki Bilboko euskararen lekukotzat hartu izan da, harik eta Knörrek 1986an Arabako Betolatza herrikoa zela ezagutu arte. Ondorioz, ordura arte Betolazaren hizkera Bilbo inguruko lekukotasunekin erkatu izan zen.

Beraz, Betolaza eta Lazarragaren hizkerak Arabako euskararen ikerketari eginiko ekarpenak aipatutako baldintzek mugatu dituzte. Lan honen xedea Betolaza eta Lazarragaren hizkerak bateratzen eta bereizten dituzten ezaugarrien ezagutzan aurreratzea da. Horretarako, hizkuntzaren atal zehatz bat aztertzea erabaki da: izen morfologia. Gai honen azterketa Betolazaren doktrinaren hedadura eta nolakotasunari zor zaie; izan ere, 14 orri idatzi dituen doktrina honek hizkuntzaren zenbait gairen corpus murrizta eskaintzen du. Hori dela eta, izen morfologia Arabako euskararen azterketari ekarpen handiena egin diezaiokeen doktrina honetako gai bezala hartu da. Lazarragak arlo honetan ageri duen corpus ugariak ere gai honen hautapena bultzatu du.

Bestalde, Betolazaren hizkeraren inguruan azterketa gutxi egin dira. Lafonek (1955) doktrinaren aditzari buruz eta Lakarrak (1981) lexikoari buruzko lanak egin zituzten, hizkeraren beste alde batzuk aztertu gabe. Zuazok (1998) Betolatzaren hizkera aztertu zuen, izen morfologia deskribatuz. Lan honetan Lazarragaren eskuizkribuko eta Betolazaren doktrinako izen morfologian nabarmentzen diren ezaugarriak aztertu eta elkarrekin konparatu dira. Azterketaren emaitzak, adituek orain arte Arabako euskararen izen morfologiari buruz emandako azalpen eta adierazpenekin konparatu eta osatu dira. Horrekin batera, zenbait hipotesi planteatu dira.

2. ARGIBIDEAK ETA MARKO TEORIKOA

2.1. XVI. MENDE ARTEKO EUSKAL LEKUKOTASUNAK

Lan honetan aztertutako testuak Arabako iparraldean kokatzen dira, eta Landuchioren hiztegiarekin batera, inguru hartan XVI. mendean mintzatzen zen euskararen erakusgarri dira. Euskarazko testurik zaharrenen artean daude Betolazaren doktrina eta Lazarragaren eskuizkribua, mende hartakoak baitira euskarazko lehen liburuak. Halere, hauek baino lehenagokoak diren lekukotasunetako batzuk, nahiz eta gutxi izan, askoz ere zaharragoak dira. Lekukotasunok toponimoak, izen bereziak, hitzen zerrendak, eta testu txikiak dira gehienbat.

Euskarazko lehenbiziko lekukotasunak erromatarkuntza garaian (k. o. II. mendea eta V. mendearen artean) egindako epigrafeak dira: toponimoak, teonimoak eta antroponimoak. Erdi Aroa arte ez da inongo lekukotasunik ageri. Garai honetako zenbait toponimo eta antroponimo bildu dira; baita euskarazko lehen perpausak ere, Errioxako Donemiliagako monasterioan aurkitutako X-XI. mendeetako glosak: *izioqui dugu* eta *guc ajutuezdugu*. XII. mendean Aymeric Picaudek zenbait euskal hitz aipatu zituen, eta XV. mendean Arnold von Harffen oinarrizko hiztegitxoa eta 1533. urteko Lucio Marineo Siculoren hitz zerrenda iritsi zaizkigu.

Testutzat har daitekeen lehen euskal lekukotasuna 1415eko Martin de Sant Martinen gutuna da. Urte batzuk geroagoko beste testu bat ere jaso dugu, 1425ekoa. 1537an Juan Zumarragak bere arrebari idatzitako gutuna dugu, aurreko bi testuak baino are luzeagoa. XVI. mendean, baina Lazarraga eta Betolazaren testuak baino lehentxeago, Bernat Etxeparek *Linguae Vasconum Primitiae* argitaratu zuen 1545ean, euskarazko lehen liburu argitaratua izanik.

2.1.1. XVI. mende arteko Arabako euskal lekukotasunak

Arabako Euskararen lehen testigantzak bertako leku izenen zenbait zerrenda dira: Donemiliagako Kartularioa (920. urtean), Erreja deiturikoa (1025ean), 1257ko agiri bat eta Tarifarako lagundu zuten herrien zerrendako albisteak (1295ean). Toponimoetatik aparte ez da bestelako lekukotasunik XVI. mende arte. Orduan, Arabara iritsitako zenbait bidaiari italiarrek aurkitu zuten euskararen egoeraren berri eman ziguten:

1528an Andrea Navagierok Gasteizen gaztelera nagusi izan arren, bertakoek euskara ulertzen zutela eta Arabako beste herri gehienetan euskaraz egiten zela adierazi zuen:

“Parlano in Vittoria castigliano, ma intendeno ancho Basuenze, & delle ville il più parla Biscaino” (Santoyo 1972, 221).

1562an Nicolao Landuchiok Gasteizko euskararen hiztegitxo bat egin zuen. Hiztegia aztertuz gero, bistan da orduko Gasteizko euskarak gaztelaren eragin sakona zuela, batez ere lexikoaren esparruan.

1572an Giovanni Battista Venturinok, Gasteiza joandako beste bidaiari italiar batek, herri xeheak ikasten zaila den euskaraz egiten zuen arren, bertako nobleziak gaztelaniaz hitz egiten zuela adierazi zuen: *“E Vittoria capo di Alava, vicina à Vipusca et à Biscaglia (...) et si vede che le persone plebee in essa parlano Biscaino ò Bascongado, come dicono, che è difficiliss(im)a lingua d’apprendere, se bene li nobili parlano chiaramente Castigliano”* (Santoyo 1972: 230).

Eliz iturriei esker, badakigu Aguraindik hurbil dagoen Gazeo herrixkan euskaldun elebakarrak bizi zirela, gotzain-erabaki baten bidez Trentoko Kontzilioaren albisteak euskaraz eman behar izan zizkietela adierazten baita. Gasteizko seminarioko 1587ko agiri batek Nafarroako hizkuntzarteko muga Kanpezu eta Orbiso inguruan zegoela adierazten du, eta 1569an Lagranen euskaraz egiten zelako berria ere badugu. Garai honetan, XVI. mendeko bigarren erdian idatziak dira Lazarragaren eta Betolazaren testuak.

Honaino baturiko informazioak euskararen eta, bereziki, Arabako euskararen ibilbideaz iritsi zaiguna laburbiltzen du. XVI. mendeko datuek erakusten dutenez, Betolazak eta Lazarragak Araban euskara galtzen hasia zenean idatzi zituzten beren lanak. Arabako hegoaldea jada erdalduntzen hasia zen, eta Arabako erreferentzia nagusia zen Gasteizen ere gaztelera euskara baino gehiago entzuten zen, batez ere nobleziaren artean. Gasteizen bildutakoa dela uste den Landuchioren hiztegia erdalduntze horren lekuko da. Landuchiori hiztegia egiten lagundu zioten euskaldunek erdal jatorriko lexiko ugaria ageri dute, batez ere A lekukoa bezala ezagutzen dena: *ladroy, estrellea, musloa, navioa...*

Lazarragaren sorterritik hurbil euskara bizi-bizirik zela erakusten du Gazeon Trentoko Kontzilioaren albisteak euskaraz eman behar izanak. Gasteizko noblezia erdaraz mintzatzen zen; aldiz, arabar noblezia txikiko Lazarragak euskaraz eta erdaraz idatzi zuen bere obra. Gasteiztik oso hurbil, Betolazak ere goi-mailakoa izanik bazekien euskaraz, baita gaztelaraz ere.

2.2. JOAN PEREZ LAZARRAGAREN BIZITZA ETA OBRA

Ezezaguna da Joan Perez Lazarragakoaren jaiotze data zehatza. Gervasio di Cesare ikertzailearen ustez, 1547 urtearen bukaeran edo 1548ko hasieran jaio omen zen, ziur aski Erdoñan. Patri Urkizuk, ordea, 1548 eta 1549 bitartean kokatzen du idazlearen jaioteguna. Pruden Gartzia ikertzaileak 1547. urtea proposatzen du, eta Luis Vidaurragak 1547 eta 1550en artean jaio omen zela adierazten du.

Lazarraga sortzez Larrea herriko Larrea dorreko jauna zen. Larrea Araba iparraldean, Gipuzkoarekin muga egiten duen herria da eta Leintz-Gatzaga, Aretxabaleta eta Oñati ditu mugakide. Lazarragaren familia jatorriz Oñatikoa zen, baina 1439tik aurrera Larrean bizi izan dira. Arabar noblezia txikikoak ziren Lazarragatarrak. Joan Perezen gurasoak Pedro Perez Lazarraga eta Elena Saez Erdoña izan ziren. Lehen haurtzaroa Ozetan eman zuen eta 1562 inguruan gurasoak Erdoñara aldatu ziren. 1567 aldera Madrilen omen zegoela adierazten du Gervasio di Cesarek. 1575ean Katalina Langarikarekin ezkondu zen Arriolan eta bi seme-alaba izan zituzten. Katalinaren izekoa eta Lazarragaren osaba elkarrekin ezkondata zeuden, baina ez zuten ondorengorik. Dirudienez, ondoretza izateko antolatu zen Katalina eta Joan Perez Lazarragaren arteko ezkontza, eta agian hortik dator kio Lazarragari Larreako dorrearen ondoretza. 1576an bertara aldatu zen. Kargu publikoak izan zituen bere eskualdean: Erdoñako elizako maiordomoa izan zen 1572an, eta 1581etik 1584ra Barrundiako alkate eta prokuradore Arabako Batzar Nagusietan. 1605eko apirilaren 11n, hil aurreko egunean, bere testamentua eman zuen, gerora Gervasio di Cesarek argitaratu zuena.

Lazarragak idatzitako bi obra ezagutzen dira: Lazarragatarren leinuaz gazteleraz idatzitako kronika genealogiko bat eta euskaraz eta gazteleraz idatzitako literatura-lanen bilduma bat. Arabako historiari buruz gazteleraz idatzitako hirugarren obra bat aipatu izan da, baina ez dago haren inguruko datu ziurrik ezta alerik ere.

Lazarragaren eskuizkribua izenez ezagutzen dena Borja Aguinagaldek Madrilgo zaharki-salerosle baten dendan aurkitu zuen eta 2004an ezagutarazi zen. Guztira 51 orri ditu, gehienak euskaraz idatziak, eta 16 orri inguru falta zaizkio. Eskuizkribuak ez du data ziurrik, baina badirudi Lazarragak berak 1567tik 1602 arte idatzitako lanak batu zituela bertan. Eskuizkribua gure egunetara erdizka heldu den artzain-nobela batek eta askotariko poema eta kantuen bildumak osatzen dute.

2.3. JOAN PEREZ BETOLAZAREN BIZITZA ETA OBRA

Nahiz eta jaiotze data zehatzik ez ezagutu, Betolaza 1556 eta 1560 bitartean jaio omen zen. Koldo Mitxelenak bilbotartzat zuen arren, 1986an Henrike Knörrek abizena ematen zion Arabako Betolatza herrixkako zela erakutsi zuen. Betolazak Pedro Perez de Betolaza eta Catalina López de Urbina izan zituen guraso, eta lau anai-arreba izan zituen. Bere sorterriko hiru abadeetako bat izan zen. Lizentziatua zela, Gasteizko kalonje izaten saiatu zen, baina ekimen honetan huts egin ondoren, Galtzadako Santo Domingoko apaiz egin zen eta bertan aritu zen 1592tik 1599 arte, ordurako doktorea izanik. Epe honetan ere Leongo elizbarrutiko artzapez izan zen. Bere heriotzaren data zehatzik ere ez da ezagutzen, baina 1600. urte hasierako zenbait agiriri jarraikiz, pentsatzekoa da 1599ko bigarren erdian hil zela, 40 bat urte zituela.

Betolazaren doktrina Bilbon argitaratu zen 1596an. Doktrinak Jerónimo de Ripaldaren 1591ko *Catecismo y exposición breve de la doctrina christiana* lanaren euskarazko itzulpena dakar, gaztelerazko bertsiorekin batera. Doktrina Kalagurri eta Galtzadako Santo Domingoko apezpikua zen Pedro Manso de Zúñigaren aginduz euskaratu zuen.

Betolazaren jatorriak zenbait buruhauste sortu izan ditu 1986 arte. Dogsonek bere lagun ‘euskaltzale azkoitiar’ batek doktrinari buruz adierazitakoa bildu zuen: “Este librito en la opinión de un sabio bascófilo azcoitiano, es más antiguo que la traducción de Capanaga, y escrito en el dialecto de Arratia, Orozco, y Llodio” (Dodgson, 1893). Azkuek (1935, 65. orr.) Kapanaga eta Betolazaren katiximak konparatzean honako ondorioa atera zuen: “Aunque el escrito es anterior al Catecismo de Capanaga con prioridad de 60 años, su lenguaje sin embargo no es más arcaico que el de éste”. Mitxelenak 1955ean doktrina argitaratu zuenean, bizkaierakotzat jo zuen, doktrina Bilboko euskaraz idatzia izan zitekeela adieraziz. Ondorioz, Azkuek bezala, Betolazaren doktrina Kapanagarenarekin konparatzean, Betolazarenak zaharragoa izanik arkaismo gutxiago zituela ohartu zen. Honen azalpen posible bezala, Bilboko euskarak berak arkaismo gutxiago zituzkeela adierazi zuen. Azkenik, 1986an, Knörrek Betolaza Arabako iparraldean dagoen Betolatza herrikoa zela ziurtatu eta ezagutarazi zuen, Aranak Martijak bilbotarra ez zela proposatu ondoren. Alabaina, ordura arteko ikerketetan Bilboko testutzat hartu izan zenez, inguru hartako beste lekukotasunekin konparatua izan da, hala nola *Refranes y Sentencias* eta Mikoletarekin.

2.4. LAZARRAGA ETA BETOLAZAREN HIZKEREN KOKAPENA

Lazarraga eta Betolazaren obrak, Landuchioren hiztegiarekin batera, Arabako euskararen lekukotasunik zaharrenak dira. Arabako euskara oraintsu arte ezezagun samarra izan da inguruko euskalkien nahastetzat edo bizkaieratzat jo delako, aurreko mendeetako lekukotasunek erakutsi bezala:

“(…) y es también lo que sucede en Álava, que participa de todos ellos, más o menos sincopados y variados.” (Larramendi, 1729, 12. orr.)

“No hago mención particular de Álava, porque en lo general su dialecto es bizcaíno.” (Larramendi, 1745, XXVII)

“El dialecto de Álava en lo más es el mismo de Vizcaya, no en el todo.” (Telletxea, 1969, 299. orr.)

“Ésta y la provincia de Álava tienen bastante mezcla y participan de los dialectos de sus provincias vecinas.” (Villasante, 1969, 12. orr.)

“Il en est de même de l’Alava, où le biscaïen est le seul dialecte basque qui soie maintenant en usage dans un très-petit nombre de localités.” (Bonaparte, 1867, 7. orr.)

Louis Lucien Bonapartek Araban aurkitutako herri euskaldunak Bizkaieraren barnean sailkatu zituen. Mungialde, Busturialde eta Durangaldeko hizkerekin lotu zuen Joan Perez Betolazakoaren jatorrizko Betolatza herria. Bertatik ekialdera dauden Aramaio, Barrundia, Ganboa eta Landa herriak Debagoieneko hizkerarekin lotu zituen. Larrea herri hauetatik ekialdera dagoenez, Larreako hizkera ere Betolatzakoaz bestelakoa zela pentsa liteke.

1958an Landuchioren 1562ko hiztegia aurkitzean, Arabako euskara aztertzeari ekin zitzaion. Arabako beste zenbait izkribu aurkitu izan dira, hauen artean Lazarragarena, eta Arabako euskararen ezaugarriak zehazten joan dira. Mitxelenak (1958) Landuchioren hiztegia argitaratzean adierazi zuen hiztegiko euskara ez zela guztiz bizkaiera eta gaur egun galdua legokeen euskalki bati zegokiola, “hegoaldekoa” izena eman ziona.

Urgellek (2006) *-eta* eta *-keta* atzizkien sorburua Gasteizen kokatu ondoren, Zuazok (2012) oraintsu arte bizkaiera deitu izan zaion euskalkia Araban, eta zehazki Gasteizen sortu zela defendatzen du. Azkenaldian indarra hartu duen tesi honetan, Zuazok Gasteizen sortutako berrikuntzak Bizkaira, Deba Ibarra eta agian Burgos eta Errioxa aldera zabaldu zirela defendatzen du. Era berean, berrikuntzotako batzuk Gipuzkoako

Urolaldera eta Goierriera eta Nafarroako Burunda, Ameskoa eta Lana ibarretaraino iritsi zirela adierazten du, Salaberri Zaratiegik (1998) Nafarroako ibar hauetarako proposatu bezala.

Ikuspuntu berri honek, euskalki hau Bizkai osoan ez mintzatzeari eta Bizkaiaz kanpo ere mintzatzeari loturik, bizkaiera bezala ezagututako euskalkiari mendebaleko euskara izena ematera bultzatu zuen Zuazo. Mendebaleko euskara izena eman zuen bere 1998ko euskalkien mapan eta 2014ko mapa eguneratuan. Dena den, eta iragan garaietara itzuliz, Arabako euskal lekukotasunek berezitasunak erakusten dituzte bata bestearen artean. Bonapartek mende eta erdi lehenago aurreratu zuen bezala, Knörrek (1985) eta Sánchez González de Herrerok (1985) ere Arabako mendebala eta ekialdearen arteko bereizketa antzeman zuten.

Zuazok (1997) mendebaleko edo sartaldeko eremua Zigoitia eta Legutiotik mendebalera kokatzen du, Betolatza herria barne dela; ekialdekoa edo sartaldekoa, berriz, Donemiliaga, Agurain, Iruraitz-Gauna eta Maeztutik ekialdera. Bi eremu hauen artean mendebaleko, ekialdeko eta bere-bereak diren ezaugarriak batzen dituen eremuaz mintzo da, Arratzu-Ubarrundia, Barrundia, Gasteiz, Burgelu, Dulantzi eta Trebiñu hartzen dituen. Larrea, Lazarragaren sorterrria, tarteko eremuan kokatu zuen, Lazarragaren eskuizkribua 2004. urtea arte aurkitu ez zen arren. Honelaxe mintzatu zen Zuazo Mendebaleko euskararen hego-ekialdeko mugez:

Gaurregun Gipuzkoan eta Bizkaian diren isoglosek aspaldi Araban barrena jarraitzen zutela ematen du. Alegia, Arabako sartaldeak Bizkaiarekin egiten du lotura eta, Deba arroarekin, Arabako erdiguneak. Horrelaxe sailkatu zituen Bonapartek 19. mende erdialdean bizirik zirauten Arabako hizkerak. Beraz, Bonapartek *bizkaiera* eta nik –ustez zuzenago– *mendebaleko euskalkia* deitzen dudan eremuan sartuko nituzke Arabako sartaldea eta erdialdea.

Ostera, Arabako sartaldea, eta Nafarroako Burunda (eta Lana eta Ameskoak) ez nituzke euskalki horretan erabat sartuko. Tarteko hizkerak dirudite hauek; mendebaleko euskalkiaren, erdialdekoaren eta euskara nafarreraren tartekoak. (1999, 9. orr.)

Betolazaren hizkerari buruz mintzatzean, erakusten dituen arkaismoak gora behera, Arratia-Otxandio aldeko euskararen antz handia duela adierazten du. Berriki, Zuazo (2012, 61. orr.) zehazki Betolaza eta Lazarragaren testuez mintzatu da: “Betolatzaren hizkera eta Lazarragarena, garai berdintsukoak izan arren, desberdinak dira.”. Honez

gain, Zuazok adierazten du ordurako Gasteiz erdaldunduta zegokeela, eta gune bateratzailerik ezak hizkera batzuk besteetatik aldentzea ekarri omen zuela. Arabako ekialdean Gasteizko eragina ahulagoa eta Iruñekoa indartsuagoa izatea ere proposatzen du mendebaldearen eta ekialdearen arteko bereizketaren arrazoi gisa, oraingoan ekialdetzat Barrundia (Larrea barne hartzen duen udalerria) ere harturik.

Bestalde, Kintanak Lazarragaren eskuizkribuko hizkera mendebaldearen eta ekialdearen arteko zubi hizkeratzat hartu zuen:

Nolabait, Lazarragaren euskara, mendebalde eta ekialde arteko euskalkien iraganbidean aurkitzen zen, batzuen eta besteen arteko zubi gisa. Alde horretatik Sakanako haran luzeak Arabako, Bizkaialdeko, Deba garaiko, Gipuzkoaldeko (Altsasuren irtenbidetik) eta Nafarroa Garaiko dialektoen arteko harremanetarako bide geografiko naturala izan da beti, eta alde horretatik Lazarraga XVI. mendean eragin ezberdin horien ondorioz bertako euskara nolakoa zen erakusteko lekuko aparta dugu, eta arreta handiz aztertzekoa. (2004, 585. orr.)

Ildo beretik, Erdoziak Lazarragaren eskuizkribua zalantzarik gabe mendebaldeko euskalki multzora lerratzen dela azaltzen du, erdialdeko eta ekialdeko hizkuntza ezaugarriak ere badituela adieraziz:

Orain arte ikusi dugun bezala, orduan, esan daiteke ziurtasun handiz Lazarragaren eskuizkribuko euskara, egungo euskalkien multzoetan nonbait kokatzekotan, mendebaldekoan behar duela izan. [...] Era berean, ez dugu ahaztu behar, Arabako Lautadako euskara, nafarrera eta mendebalaren artean aurkitzen zela eta baita Deba garaia (San Adriango pasabidea) eta Goieritik (Altsasutik barna) oso hurbil. Pentsatzekoa da, beraz, eskuizkribuak hizkuntza hurbiltasun hau jasoko duela eta, neurri batean behintzat, ekialdeko eta mendebaldeko hizkeren arteko zubi lanen lekuko izango dela. (2006, 12. orr.)

Laburbilduz, Zuazoren, Kintanaren eta Erdoziaren ekarpenek iradoki bezala, inguruko hizkeren eraginak jaso dituen euskara dugu Arabakoa. Hortaz, Arabako eskualde batzuetatik gertu mintzatzen ziren hizkeren eraginak ez dira Araba osora iritsi, eskualde bakoitzak gertuen zituen hizkeren eraginak jaso baitzituen. Era berean, Araban egindako berrikuntzak ez dira Araba osoan hedatu, eta eskualde bakoitzean bertoko berrikuntzak ere egin dira. Ondorioz, euskara heterogeneoa da Arabakoa, eta Betolaza eta Lazarraga heterogeneotasun horren lekuko dira.

3. LAZARRAGA ETA BETOLAZAREN IZEN MORFOLOGIAREN AZTERKETA KONPARATIBOA

3.1. HELBURUAK ETA METODOLOGIA

Lan honen helburu nagusia Lazarraga eta Betolazaren lanetan ageri den izen morfologia konparatzea da. Honi loturik, honako helburuak planteatu dira:

- Autore bakoitzak ageri dituen artikulua, kasu markak eta postposizioak identifikatzea.
- Bi autoreek izen morfologian ageri dituzten bereiztasun eta antzekotasunak deskribatzea.
- Aurkitutako bereizitasunak eta antzekotasunak aztertzea, adituek egindako ekarpenekin erkatuz.
- Lazarraga eta Betolazaren testuen edukiaz baliatuz, Arabako euskararen izen morfologiaren ezagutzan sakontzea.

Metodologiari dagokionez, honako urratsak eman dira helburu hauek bete daitezen:

Betolaza eta Lazarragaren lanak irakurri dira, honetarako, Mitxelenak argitaratutako Betolazaren doktrina eta Lazarragaren eskuizkribuaren edizioa, honako autoreek egina: Bilbao, G., Gómez, R., Lakarra, J. A., Manterola, J., Mounole, C. & Urgell, B. (2010). Prozesu honetan artikuluen, kasu marken eta postposizioen formak bilduz. Informazioa bildu eta antolatzeko Excell programa erabili izan da, lekukotutako formak autore eta kasuen arabera sailkatuz.

Bildutako kasuetan forma eta erabileraren arabera bereizitasunak eta antzekotasunak bilatu dira. Analisi honen ildotik, bereizitasunak, salbuespen deigarriak eta antzekotasun bitxiak ageri dituzten kasuak aukeratu dira konparaketa egiteko. Hurrengo fasean, autore bakoitzaren izen morfologiatik aukeratutako kasuak banaka deskribatu eta aztertu dira.

Jarraian, aukeratutako kasuetan autore baten eta bestearen kasuen formak eta erabilera konparatu dira. Honekin batera, adituek gai honi buruz eskainitako informazioa bildu da, kasuen forma eta erabileren azalpenak bideratzeko. Azkenik, adituen azalpenetatik kanpo leudekeen, edota azalpenik eman ez zaien ezaugarrietarako, zenbait hipotesi planteatu dira.

3.2. DATUEN DESKRIBAPENA ETA ANALISIA

3.2.1. Datuen deskribapena

3.2.1.1. Artikulua eta kasu markak

Izen morfologiari dagokionez, eta deklinabidean hain zuzen ere, honako berdintasun eta bereiztasunak aurkitzen dira:

Lazarragak izenari, izenordainari eta adjektiboari hiru artikulu eransten dizkio, hurbiltasun-urruntasunaren arabera. Artikulu hauek absolutiboan *au*, *ori* eta *a* erakusleak dira; ergatiboan *onek*, *orrek*, eta *ak*; eta datiboan *oni*, *orri* eta *ari*. Lazarragaren testuan erakusleen gradua lehenengo, bigarren eta hirugarren pertsonarekin erlazionatuta dago, hurbilena lehenengo pertsonari egokituz, erdi-mailakoa bigarrenari eta urrunena hirugarren pertsonari. Kasu hauetan posesiboa aurretik eraman dezakete, posesiboaren pertsonak eta erakuslearen graduak ere arestian aipatutakoarekin bat egiten dutela.

- *Au* artikulua erantsirik:
 - Absolutiboan: *ene bioçau*, *ene fedeau*, *gogoau*, *ene lagunau*, *neure buruau*, *borondateau*...
 - Ergatiboan: *amoreonec*, *neuronec*
 - Datiboan: *doncelleoni*
- *Ori* artikulua erantsirik:
 - Absolutiboan: *galantori*, *ceure buruori*, *colpeori*, *mesedeori*, *emazteori*, *suori*...
 - Ergatiboan: *ene laztanorrec*, *isasoorec*, *ceurorrec*, *suorrec*, *alabeorrec*
 - Datiboan: *guztiorri*, *doncelleorri*, *morroeorri*...
- *A* artikulua erantsirik:
 - Absolutiboan: *bere pensamentua*, *Jaungoicoa*, *denporea*, *Silberoren icena*...
 - Ergatiboan: *semeac*, *esecoandreac*...
 - Datiboan: *on derechunay*, *cerucoay*, *laztanai*, *onerechiai*...

Lazarragaren eskuizkribuan datiboaren markak *-ari*, *-ai* eta *-oi* dira. Singularrean *-ari* eta *-ai* erabiltzen ditu, eta pluralerako *-ai* eta *-oi*. Ondorioz, *-ai* datibo-atzizkia erabiltzen duenean, singularitasuna edo pluralitasuna adizkiak agertzen du:

gabetan barriz ez jagot joco / laztanai biguelea (*laztanai* singularra da)

ytaunduric esecoai nun çan esan eusaen (*esecoai* plurala da)

Artikuluok izenari eransterakoan, soilik *-a* amaiera duten izenekin egiten ditu disimilazioak: *licenciaea, sententiaea, arpea, abantajea, gueraciaea, historieac... esperanceau, musiqueau, dagueau, lllagueau... doncelleoni, doncelleorri...*

Artikuluari pluralgilea eranstea, ordea, soilik hirugarren mailako erakusleaz osaturiko artikuluarekin onartzen du pluralgilea: *ministrilac, musicoac, jaztecoac...*

Azken hauetan, hitza *-a* bokalaz amaitzen bada, bokal hau eta artikulu pluralarena soildu egiten dira gehienetan (*Françiaco armac dacaz; arma + ac > armac*), baina adibide batzuetan soildu gabe ageri ditu: *bervaac, doncellaac, erropaac, amaac, capaac...*

Lazarragak, Betolazak bezalaxe, *-ok* pluralgile hurbila darabil, baina Lazarragak askoz ere sarriago erabiltzen du.

Betolazari dagokionez, *-a* artikulua baizik ez du erabiltzen, salbuespen birekin:

Ni becatariau eta çuri Ayta espiritualorri.

Artikulu singularra eranstea, soilik *-a* bukaera duten izen eta adjektiboekin egiten ditu disimilazioak, Lazarragak bezala: *Templancea, benditea, Clementissimea, Piadosea, Esperanzea, eriozea, Amea, Aytea...* Azken bi hauek bereziki esanguratsuak dira, artikulurik jasotzen ohi ez dutelako eta Lazarragak berak ere erabiltzen dituelako: *amea, aytea.*

Datibozko formak erabiltzean, Betolazak ere *-ari* eta *-ai* darabiltza, baina Lazarragak ez bezala, datibo singularra eta plurala bereizten ditu beti, singularrerako *-ari* eta pluralerako *-ai* erabiliz.

Lazarragak ez bezala, Betolazak beti asimilatzen ditu hitz bukaerako *-a* eta pluralgilearena: *injuriac, flaquezac, primiciac...*

3.2.1.2. Postposizioak

Genitiboa

Jabetza genitiboari dagokionez, Lazarragak *-ren* eta *-en* formak darabiltza singularrerako, formen araberako bereizketarik egin gabe. Horren adibide dira *Silveroren/Silveroen, Sirenaren/Sirenaen, Doridoren/Doridoen, ceuren/ceuen* eta *Cerucoaren/Cerucoaen* forma singularrak, eta *-en* genitibo singularraz eratutako beste hainbat: *laztanaen, eneaen, arçaiaren, canpuaen...*

Pluralerako, ostera, bakarrik *-en* forma erabiltzen du: *andraen, dama baçuen, bioen...*

Ondorioz, *-en* singularrean zein pluralean ager daitekeenez, zalantzakoa da adibide batzuetako numeroa: *onein batenaz oy quenduco jac / amoraduen nonbrea*.

Betolazak ere *-en* jabetza genitibo singularra erabiltzen du, euskara osoan ohikoa den *-ren* formarekin batera: *ceruaren, lurraren, Evaen, Christoen, yñoen...*

Jabetza genitibo singularrekin jarraituz, Betolazak artikulua eta *-en* genitibo markaren arteko fusioa egiten du batzuetan: *araguien, verdaderuen, omnipotenten, etorrunen, iren, gulen, naguitasùè, iaùgoycoè, ayten, semen, Espiritu Santuen*.

Lazarragak, arestian jarritako adibideetan ikus daitekeenez, artikuluari eusten dio *-en* morfema gehitzean: *laztanaen, arçaiaren, canpuaen*. Salbuespen bakarra *amoraduen* singularreko forma da.

Jabetza genitibo pluralerako, Betolazak ere ohikoa den *-en* forma erabiltzen du, kasu batean salbu: *hilaren* forma plurala.

Izenordainekin *-re* jabetza genitibo zaharra darabilte autore biek singularreko formetan, eta *-(r)en* pluralekoetan. Lazarragak *ene* eta *nire/neure* erabiltzen ditu lehenengo pertsona singularrerako, Betolazak, aldiz, *neure* baizik ez du erabiltzen.

Leku-denborazko genitiboari dagokionez, bi autoreok singularrerako *-ko* eta pluralerako *-etako* formak erabiltzen dituzte. Nabarmentzekoak dira inesiboari lotutako zenbait genitibo marka: Lazarragaren testuko *osteango* eta *gorpuceango*, eta Betolazaren *egunean eguneango*.

Bestalde, *heriotza* izena *-ko* genitibo markaz, leku-denborazkoei dagozkienaz erabiltzen dute Lazarragak (*erioçaco*) eta Betolazak (*eriozaco*).

Soziatiboa

Lazarragak soziatibo singularrerako *-(re)gaz* eta *-(re)kin* erabiltzen ditu. Gehien erabiltzen duen forma *-gaz* da, eta genitiboari soziatiboa atxikita eratutako formak (*-regaz* eta *-rekin*), kasu batean salbu (*gonearequin*), izenordain eta erakusleekin erabiltzen ditu: *çuregaz, çurequin, neuregaz, aregaz*. Hauekin batera, genitibo markaz eratu gabeko soziatiboak ere darabiltza izenordain eta erakusleekin: *çugaz, gugaz, agaz, nigaz, neurgaz...*

Soziatibo pluralerako, Lazarragak *-kaz* eta *-kin* erabiltzen ditu: *delicaduocaz, berbaocaç, çorroçacaz, andiacaz, amorosoacaz; gabaquin, guztiaquin, ardiaquin, esecoaquin...*

Zenbait kasutan, *-gaz* marka erabiltzen du soziatibo pluralerako: *escuogaz, damaogaz, oegaz, çuegaz.*

Lazarragak zenbaitetan soziatiboaren marka instrumentalaren ohiko testuinguru batzuetan erabiltzen du: *onezquero ez ditecen / amoregaz burladu* eta *Doncellachoa, orain çaoz / soberviagaz beteric.*

“X Y-gaz” tankerako egiturak erabiltzen ditu Lazarragak “X eta Y” adierazteko, soziatibo marka dela medio: *canpaac bere chapitelagaz arturic, az chiquirra vioçagaz, pabaneagaz baja, errelleagaz goldea, çuregaz ene secretoa, Doridogaz Silveroren bervac.*

Betolazak, osterak, *-gaz* eta *-kaz* soziatibo markak erabiltzen ditu. Lehenengoa, *-gaz*, singularrerako baizik ez du erabiltzen; *-kaz* pluralerako gehienetan, baina zenbait kasutan singularra adierazteko erabiltzen du: *ençunacaz, comulgueteacaz.*

Instrumentala

Lazarragak eta Betolazak euskara osoko *-z* instrumental marka erabiltzen dute. Lazarragaren kasuan bakarrik, instrumentalaren marka soziatiboaren balioaz aurkitzen da zenbaitetan:

- *Ceruco Jaunaz oyta, Sirena, gueratu, bada, çatez çu*
- *Andra dicha bagueau / sei ylecoaz maiaetan*
- *guiçon batec or daroa / ynoçentea besoetan / ysaldea beera doa / bere buruaz bervaetan*
- *bere semeaz concertadu / oyta çeñari / semea leyon otorgadu*
- *cerren ez dago / norc socorridu jenteric / cerren eocen / içurriteaz urtenic.*

Inesiboa

Bai Lazarragak eta bai Betolazak ere, bizigabeen inesibo singularrerako *-an* erabiltzen dute, eta pluralerako *-etan*. Bizidunen inesibo singularra adierazteko *-gan* forma erabiltzen dute bi idazleek, jabetza genitiboaren *-(r)en* marka gabe. Pluraleko formetarako, ordea, Lazarragak *-gan* eta bizigabeei dagokien *-tan* formak darabiltza:

linda dama erruqui nauca / ez dodan guero culparic / çu lacoagan ez leuque behar / crrueldadeac parteric

Neure buruau ez nei ondo / andratan confiaçea

Adlatiboa

Bizidunen adlatiboa aurretiko *-(r)en* genitibo markarik gabe erabiltzen du Betolazak: *gugana, geugana*. Lazarragak ere *-gana* marka darabil, baina honek zenbait izenordainekin *-regana* ere erabiltzen du: *aregana, çuregana*.

Bizigabeen adlatiborako *-ra* singularrerako eta *-etara* pluralerako erabiltzen dituzte bi idazleek.

Ablatiboa

Lazarragak *-rean* erabiltzen du bizigabeen ablatibo singularrerako Aldaik (2013) adierazitakoaren arabera, ablatibo singularrerako 37 aldiz ageri du *-rean*, eta beste 6 aldiz *arean da* egitura: *lecurean, baterean, camararean, maucarean, errirean, aorean, onerean, iturrirean*, eta abar. Hauekin batera, 5 aldiz dakar *-reanik* pleonastikoa, eta behin *-tika* ablatiboan.

Hauekin batera, *-rik* (*Nafarroaric, onetaric, artaric*), *-reanik* forma pleonastikoa (*lecureanic, arereanic, altureanic, oreanic*) eta *-tika* (*Gaztelatica*) erabiltzen ditu, soilik emandako adibideotan. Zalantzazko beste adibide bat du, *-tik* atzizkiaren litekeena, baina orria hondatuta dagoenez, ezin jakin daiteke forma osoa: *saqusquedan leyotic[...]*.

Bizigabeen ablatibo pluralerako, aldiz, *-etaric* erabiltzen du: *escuetaric, aetaric, beguietaric*.

Bizidunekin *-ganic* ablatibo singularra darabil Lazarragak (*Sirenaganic, ugaçabaganic, gaxtoaganic...*), eta behin baino ez du erabiltzen genitibo markadun *-reganic* forma: *çureganic*.

Betolazak bizigabeen ablatibo singularrerako *-rean* eta *-ric* erabiltzen ditu, azken hau sarriago: *arterean, gustiric, captiverioric, aric*. Bizigabeen ablatibo pluralerako *-etaric* erabiltzen du: *arerioetaric, deunguetaric*.

Bizidunen ablatiborako *-ganic* erabiltzen du Betolazak: *deungueaganic, Brigineaganic*.

Prosekutiboa

Lazarragak ablatiboa eta prosekutiboa bereiztu egiten ditu, singularrerako *-ti* eta pluralerako *-etati* erabiliz: *bertati, biozeti, bideti, canputi, basoti...*; *lecuetati, odeietati, escuetati, gañeti...*

Betolazak ere *-ti* singularra eta *-etati* plurala erabiltzen ditu: *ganeti, aldezcoatati*.

Motibatiboa

Lazarragak *-gati, -gaiti* eta *-arren* morfemak darabiltza motibatibo singularrerako. Aditz izenen atzizkiari *-arren* morfema eranstea, zenbait gertakari fonologikoren ondoriozko hainbat bukaera ditu: *-terren/-tzerren* (*ecusterren, ebilterren, iragaiterren, ausaiterren, iracasterren; servicerren, alabacerren*), *-tearren* (*etortearren*) eta *-etarren* (*probaetarren, castaetarren*). Izenari erantsitako adibiderik ere badu: *amorearren, dirurren*. Honez gain, *-gaiti* eta *-arren* morfemen arteko *-gaiti(a)rren* egitura pleonastikoa ere erabiltzen du: *cegaitiarren, cegaitirren, guztiagaitirren*). Motibatibo pluralerako *-ga(i)ti* erabiltzen du: *çuegaiti, arçaiægati*.

Betolazak motibatiborako ez du *-gati* forma erabiltzen, bai ordea *-gaiti* (*onegayti, señaleagayti...*), *-gaitik* (*gu gaytic*) eta *-arren*, azken hau aditz izenaren atzizkiei eranstea *-etarren* bukaera sortuz: *redimietarren, salvaetarren*. Lazarragak bezala, Betolazak *-gaiti* eta *-arren* atzizkien arteko forma pleonastikoa darabil: *onegaterren*.

Zenbait kasutan Betolazak motibatiboa izenari edo izenordainari lotu gabe agertzen du: *gu becatarioc gayti, viziak gayti, hilac gayti, gu gaytic*).

3.2.2. Analisi konparatiboa

Betolaza eta Lazarragaren testuek corpus oso ezberdinak dakartzate. Betolazaren doktrinak 14 orrialde eta azala baizik ez ditu; Lazarragaren eskuizkribua, ordea, askoz ere luzeagoa da. Horrez gain, autore batoren eta bestearen testuek gai, xede eta estilo desberdinak dituzte:

Betolazarena doktrina erlijioso baten itzulpena denez, perpausen egitura errepikakorrak ageri dira. Ondorioz, lexiko mugatua du, eta aditz denbora eta aspektu berak errepikatzen dira. Honez gain, izen morfologiaren azterketa bidera dezaketen kasuak eta postposizioak eskasak dira, zenbait kasuren adibiderik ez izatera iritsiz. Hala,

Betolazaren doktrinan ez da hurbiltze ez muga adlatiborik ageri, ezta destinatibo eta prolatiborik ere.

Lazarragarenak, ordea, artzain-nobela eta poesia biltzen ditu. Ondorioz, izen morfologia aztertzeko lekukotasun ugari ditu eta kasu guztien adibideak biltzen ditu. Lan honen xedea bi autoreen izen morfologia konparatzea denez, soilik biek agertzen dituzten kasuen arteko konparaketa egin da.

Atal honetan, bi autoreen izen morfologian ezberdintasun nabarmenak erakusten dituzten ezaugarriak aztertu eta elkarren artean konparatu dira. Horrez gain, azterketa konparatiboa adituek alor bakoitzean emandako azalpenekin osatu da, adituen azalpenek eta aztertutakoak bat egiten duten analizatuz. Adituen azalpenetatik kanpo leudekeen, edota azalpenik eman ez zaien ezaugarrietarako, zenbait hipotesi planteatu dira.

Adierazi bezala, emaitzen azterketarako ezberdintasun esanguratsuenak erakusten dituzten kasuak konparatu dira: ablatiboa, prosekutiboa, motibatiboa, soziatiboa eta instrumentala.

3.2.2.1. Ablatiboa

Ablatiboko formak konparatzean, *-rean* atzizkia bizi-bizirik antzematen da Lazarragaren eskuizkribuan; Betolazak, aldiz, atzizki honen adibide bakarra baino ez dakar, bi aldiz agertzen dena: *hilaren arterean*. Adibide bakar honen bi agerpenek Betolazaren hizkeran jada *-rean* atzizkia arkaismoa zela erakusten dute, fosildurik geratutako adierazpena ematen baitu. Atzizki honen lekukotasun gehienak mendabalekoak diren arren, erdialdean eta ekialdean ere lekukotzen da. Lakarrak (1986) adierazitakoa betetzen da, alegia, *-rean* atzizkia gure egunetara iritsi zaizkigun lehen testuetatik defektiboa dela, salbuespenak salbuespen, ezin baita bizidunekin, denborazko kutsuarekin ezta leku izen bereziekin erabili. Lazarragaren eskuizkribuan *(re)ganic* da bizidunen ablatiboko atzizkia, eta ez da denborazko kutsua duen *-rean* atzizkirik aurkitzen. Leku izen bereziekin *-rik* (*Nafarroaric*) eta *-tika* (*Gaztelatica*) erabiltzen ditu.

Lakarrak adierazitakoez gain, bada XVI. menderako defektiboa zen *-rean* atzizkiaren beste testuinguru bat: ablatibo plurala. Lakarrak (1984) Landuchioren lanetan baino ez zuen *-rean* deklinabide atzizkiaren forma pluralik aurkitu: *-etaren* eta *-etarean* formak, hain zuzen ere. Alabaina, Lazarragaren eskuizkribuaren aurkikuntzak, *-tarean*

atzizkiaren bi adibide gehiago eskaini dizkigu, biak mugagabeen: *berrtarean* eta *afaritarean*. Hauekin batera, *-rik* atzizkiaren gainean eraikitako *-etarik* forma dakar Lazarragak hamar adibidetan. Honenbestez, haren hizkeran *-(e)tarean* atzizkia galbidean zela pentsa liteke, *-etarik* formaren mesedean. Lazarragak bezala, Betolazak ere *-etarik* forma plurala erabiltzen du ablatibo pluralerako, baina ez du *-rean* atzizkiaren forma pluralik agertzen. Betolazak singularrean *-rik* forma nagusi izatean, pluralean *-etarik* erabiltzea espero izatekoa dela adierazten du Lakarrak. Bizidunen ablatiboan bat egiten dute Lazarragak eta Betolazak, biek *-(re)ganik* forma erabiliz.

Lakarrak (1986) adierazi zuenez, *-rean* atzizkiak lekukotasun zaharretan duen maiztasuna denborarekin gutxiagotu zen erabat desagertu arte, *-rik* atzizkia *-rean* atzizkia erabiltzen zen testuinguru zenbaitera hedatu baitzen. Tartean, *-rean* eta *-rik* egituren gainean *-reanik* pleonasmoa ere erabili izan zen. Lazarragaren eskuizkribua aurkitu baino lehenago, atzizki honen lehen agerpena 1638ko Egiaren Kantako *cumareanic* zen, eta haren azken agerraldiak 1858ko Laudioko doktrinako *eserianic* eta *gacherianic* dira. Honezkerok, Lazarragak dakartzan *lecureanic*, *arereanic*, *altureanic* eta *oreanic* atzizki honen lekukotasunik zaharrenak dira. Lakarrari jarraituz, ablatiboaren atzizki hauen agerpena eta hedapena ez ziren modu berean eman ez sisteman ezta azpieuskalki guztietan ere. Hala, Lakarrak adierazitako testuinguru defektiboetatik kanpo, Lazarragak gehienetan *-rean* erabiltzen du, eta adibide gutxi batzuetan, *-reanik* forma pleonastikoa. Hauekin batera, ablatiboan darabiltzan *canputi*, *erriti* eta *Gaztelatica* ageri ditu. Betolazak, aldiz, behin baino ez du ageri *-rean* atzizkia, *-rik* izanik ablatibo singularreko forma nagusia haren doktrinan.

3.2.2.2. Prosekutiboa

Lazarraga eta Betolazaren testuetan ablatibo eta prosekutiboaren arteko oposaketari eusten zaio. Betolazak, oso adibide gutxi dituen arren, *-ti* atzizkia erabiltzen du ‘non zehar’ adierarekin (*aldezcoatati*, *ganeti*), ablatiborako arestian aipatutako *-rik*, *-etarik* eta *-rean* atzizkiak erabiliz.

Lazarragak prosekutiboaren erabilera ugariagoa du, honek ere ‘non zehar’ adieraz erabiltzen duela. Singularrean *-ti* eta [t > d / n_] testuinguru fonologikoaren ondoriozko *-di* aldaera (*nundi*) erabiliz, eta pluralean *-etati* erabiliz:

Silvero joeala equian lecuetati egun baten bada bere bideti joeala topadu çan...

Lazarragak ziurtasun osoz bi adibidetan urratzen du ablatibo eta prosekutiboaren arteko oposaketa, *-ti* eta *-tika* ablatiboan erabiliz: *aditu even os andi bat, canputi / etorrena* eta *Gaztelatica jentilombre bat / orayn etorri ey jacu*. Zalantzazkoa bada ere, *Ene erriti oyta çurera / badago bidaçidorric* adibideak ere *-ti* atzizkiaren ablatiboko erabilera erakutsi lezake. Bestalde, badu *-tik* atzizkia izan daitekeenaren adibide bat, baina orria hondatuta dagoenez, ezin ezagutu daiteke *-tik*, *-tika* ala bestelako amaieraren bat ote den: *saqusquedan leyotic[...]*.

Prosekutiboa eta ablatiboaren arteko oposaketa bigarrenaren alde galdu zen. Mendebaldea izan zen, XVIII mendean zehar, prosekutiboaren balioa (alegia, ‘non zehar’ adiera) galdu zuen azken eremua, nahiz eta *-k* gabeko *-ti* atzizkiak oraindik ere zenbait hizkeretan bizirik iraun. Ez dago guztiz argi *-tik* atzizkiaren jatorria, zenbait azalpen eman baitzaizkio atzizki berri honen eraketari. Ulibarrik (2015) dioenez, Lafonen ustez *-ti* atzizkiari ablatiboko *-rik* atzizkiaren analogiaz gehitu zitzaion amaierako *-k*, *-tik* berria sortuz. Mitxelenak, ordea, *-ka* atzizki adberbiala *-ti* atzizkiari atxiki zitzaioala adierazi zuen, *-tika* forma osatuz. Azkenik, forma honetatik dagoeneko ablatiboaren balioa zuten bi atzizki sortu bide ziren: amaierako *-a* galduz *-tik* atzizkia eratu zen eta inesiboko *-n* gehitzeak *-tikan* atzizkia eman zuen.

Lazarragaren *Gaztelatica* adibidea hobeki ulertzen da Mitxelenaren azalpenarekin, Lafonen azalpenak *-tik* atzizkiaren balizko osaera baizik ez du iradokitzen, eta argitzeke uzten ditu *-tika* atzizkiaz osatutako ablatiboak. Aipatutako *-tika* eta *-tikan* atzizkiak *-rika* eta *-rikan* atzizkien analogiaz sortu zirela pentsatzea ere okerra litzateke, azken bi hauek partitiboko *-rik* atzizkitik eratorriak baitira.

Lakarrak (1984) adierazi zuenez, 1737ko Urkizuren lana arte ez da *-tik* atzizkiaz osatutako ablatiborik lekukotzen mendebalean. Lazarragaren eskuizkribua mendebalean erabat kokatzea ez litzateke guztiz zuhurra, baina honetan ere ez da *-tik* bat ere ageri, ezta Betolazaren doktrinan ere. Ordea, Lazarragak *-tika* agertzeak, atzizki hau *-tik* baino zaharragoa izatearen alde egiten du: bi autore hauen hizkeretan oraindik ez zen *-tik* berria sortu, bai ordea zaharragoa omen den *-tika* Lazarragarenean. Beraz, Mitxelenaren azalpenari jarraikiz, *Gaztelatica* bezalako adibideetan *-ti* prosekutibo-atzizkiari *-ka* adberbiala atxikitu zitzaion.

Ulibarrik (2015) adierazi bezala, *-ti(k)* atzizkiak mendebaldean ez zuen ablatiboaren balioa hartu XVIII. mendera arte. Lazarragaren *Gaztelatica* adibideak ablatiboaren balio

du, beraz bi mende lehenagoko *-tika* ablatiboa da. Mendebaldetik ezin etor zitekeen berrikuntza hau Gipuzkoatik eta Nafarroa aldetik iritsi zitzaion Lazarragari. Alabaina, Lazarragaren hizkeratik mendebalera, Gasteizko euskarakotzat hartua den Landuchioren hiztegiko ‘B’ laguntzaileak prosekutiboan edo ablatiboan izan daitekeen *-tika* formaren *lecutica lecura* jarri zuen. Nabarmendu beharrekoa da Agudek eta Mitxelenak lekuko honi buruz adierazitakoa: “las formas dadas por B son en general o más orientales (...) o más castizas (...) B era un conocedor de la lengua que hablaba una variedad más próxima al guipuzcoano, y que estaba mucho menos alterada por la afluencia de elementos léxicos extraños” (1958, 19-20). Beraz, *-tika* ekialdeko berrikuntza litzateke, Lazarraga eta Landuchioren ‘B’ laguntzaileen hizkeretara iritsi zena. Eskuizkribuko adibide bakarra izanik, eta ablatiboa eta prosekutiboa bereizten dituela kontuan harturik, bi kasu hauen arteko oposaketa galtzearen hasikina erakusten du adibide honek.

3.2.2.3. Motibatiboa

Motibatiboari dagokionez, antzeko formak erakusten dituzte Betolaza eta Lazarragaren testuek. Bi autoreek erabiltzen dituzte *-gatic* eta *-tearren* atzizkiak, bi atzizkien zenbait aldaera erabiliz.

Betolazaren doktrinak motibatiboko 13 adibide dakartza, hauetatik 8 *-gaiti* atzizkiaz direla. Badu *-gaitik* atzizkiaren adibide bat eta *-tearren* atzizkiaren 3 adibide, *-etarren* aldaeraz (*redimietarren*, *salvaetarren* (azken hau birritan erabiltzen du). Haez gain, badu *-gatic* eta *-tearren* atzizkiez osatutako motibatibo-atzizkia *onegaterren* adibidean.

Lazarragak *-gaiti* erabiltzen du gehienetan, eta honen aldaera berriagoa den *-gati* atzizkia ere usu erabiltzen du. Haez gain, *-tearren* motibatibo-atzizkiaren zenbait aldaera erabiltzen ditu: *-tearren* berau (*etortearren*), *-terren/-tzerren* (*ecusterren*, *iragaiterren*, *ausaiterren*, *iracasterren*; *alabacerren*, *servicerren*), *-etarren* (*probaetarren*, *castaetarren*, *contentaetarren*), eta *-arren* (*amorearren*). Adibide hauetako bat behintzat helburuzkoa dirudi: *Tenplaçen asi çan biguelea contentaetarren bere aytea*. Hauekin batera, Betolazaren *onegaterren* formaren antzeko egiturak ere erabiltzen ditu, *-gatic* eta *-tearren* atzizkiez osatuak: *guztiagaitirren*, *cegaitiarren*.

Euskara baturako aukeratutako *-gatic* aldaera zenbait berrikuntzaren ondorio da. Jatorriz *gai* izenari prosekutiboko *-ti* atzizkia erantsiaz sortutako atzizkia dirudi. Betolazak atzizki honi ezagutzen zaion formarik zaharrena dakar, *-gaiti*, eta zenbaitetan determinatzaile sintagmatik banandurik agertzen du: *gu becatarioc gayti*, *viciac gayti*,

hilac gayti. Adibideok *gaiti* izen beregaintzat erakusten dute, atzizki bezala finkatu aurretik. Hauekin batera ageri dituen *onegayti*, *señaleagayti*, *erruagayti*, *andiagayti* eta *menosprecioagayti* adibideek dagoeneko atzizki bezala funtzionatzen zuela erakusten dute. Beraz, ematen du *gaiti* izen beregain gisa Betolazaren hizkeran galbidean zela eta atzizki bihurtzen hasia zela.

Nabarmentzekoa da Betolazaren doktrinan *gaiti* beregaina ageri duten adibide guztiak pluralak direla, eta *-gaiti* atzizkitzat dutenak, berriz, singularrak. Berezitasun honen ondorioz, pentsa liteke Betolazaren hizkeran *-gaiti* soilik singularreko formetan atxikitzen zela atzizki bezala, eta atzizki bihurtzearen berrikuntza ez zela oraindik pluralera zabaldu. Bestalde, Betolazak *-gaitik* atzizkiaz osatutako adibide bakarra du: *gu gaytic*. Lakarrak (1984) adierazi legez, mendebaldean 1737ko Urkizuren lekukotasuna arte ez da *-tik* atzizkia lekukotzen. Motibatibo zaharreko *-gaiti* atzizkia *gai* izena *-ti* atzizkia erantsiz sortu zela kontuan hartuz, bitxi samarra suertatzen da *-gaitik* atzizkia agertzea. Arestian adierazi bezala, Betolazak *-ti* erabiltzen du prosekutiborako eta ez du *-tik* atzizkiaren adibiderik, ez prosekutiboan, ezta ablatiboan ere. Lan honetan *-tik* atzizkia baino zaharragozat hartu den *-tika* ez agertzeak honako azalpena izan lezake: *-tika* Betolatzatik ekialderako hizkeretan sortua edo handik zabaldua litzateke. Honela hobeto ulertuko litzateke Lazarragak *-tika* agertzea, bere sorterrria Nafarroako eta Gipuzkoako hizkeren eraginetik gertuago baitzegoen.

Motibatiboko *-arren* atzizkiaz osatutako zenbait hitz amaiera ageri dituzte Lazarragak eta Betolazak. Aldaera hauen azalpena aditz izenen forman legoke: *-arren* atzizkia aditz izenei erantsen zaie, eta aditz izena sortzeko erabilitako atzizkiaren formaren arabera, soiltze desberdinak gauzatzen dira. Hala, Lazarragaren eskuizkribuan *-tea* amaiera duten aditz izenak *-arren* atzizkiarekin batzean, *-tearren* > *-terren* soiltzen da: *ecusterren*, *iragaiterren*, *ausaiterren*, *iracasterren*. Soiltze bera ageri da *-tzea* amaiera dutenetan: *alabacerren*, *servicerren*. Hauxe gain, soiltze edo fusiorik gabeko kasu bat ageri du: *etortearren*. Ostera, *-eta* amaiera duten aditz izenak *-arren* atzizkiari elkartzean *-etarren* forma osatzen da: *probaetarren* (probaeta + *-arren*), *castaetarren* (castaeta + *-arren*). Betolazak ere aldaera honen adibideak ageri ditu: *redimietarren*, *salvaetarren*.

Aditz izenaren gainean eraikitako forma hauekin batera, izen arrunt bati zuzenean *-arren* erantsiz osatutako adibide bat dakar Lazarragak: *amorearren*. Bestalde, *-gaiti* eta

-arren atzizkien forma pleonastikoak dirudite Betolazaren *onegaterren* eta Lazarragaren *guztiagaitirren* eta *çegaiti arren* formak. 1858ko Laudioko doktrinak ere egitura bereko *orregatiarren* adibidea ageri du, eta Barrutiaren Gabonetako Ikuskizunean *beragaterren* forma lekukotzen da. Era berean, 1609ko Elorrioko maitasun kantan *agaytirren* ageri da. Motibatiboko *-ga(i)ti* eta *-arren* atzizkien artean osatutako egiturok hiperkarakterizazioaz sortuak izan litezke.

Lazarragak *-ga(i)ti* atzizkia ziurtasun osoz bi adibidetan pluralean erabiltzen du:

“*An eocen arçaiægati içan ez baliz, ez zatean asco an ila*”

“*Dama galantac (...) au çuegaiti eguiteraco asco da errazoaric.*”

Lehenengoan, *eocen* adizki pluralak *arçaiægati* forma plurala dela erakusten du, ‘artzaiengatik’ adiera izanik. Beste adibide honek ere fenomeno bera erakutsi lezake:

“*Eta dacusqueçun gauçagayti ez beguioc espilurean quendu*”

Kintanak (2004) eta Aldaik (2013) adierazi zutenenez, Lazarragaren adizkiek zenbaitetan ez dute pluraleko komunztadurarik, haren hizkeran objektu pluraleko komunztadura aukerakoa baita. Ondorioz, *gauçagayti* singularra zein plurala izan daiteke.

Eskuizkribuko motibatibo pluralaren adibide bakarrak *arçaiægati* eta *çuegaiti* dira, zalantzazko *gauçagayti* adibidearekin batera. Beraz, Lazarragak *-ga(i)ti* atzizkia singularrean zein pluralean erabiltzen zituela interpreta daiteke.

3.2.2.4. Soziatiboa

Betolaza eta Lazarragaren soziatibo-atzizkiek alde nabaria erakusten dute. Betolazak *-gaz* eta *-kaz* atzizkiak erabiltzen ditu, lehena singularrerako eta bigarrena kasu gehienetan pluralerako eta, gutxi batzuetan, singularrak diruditen zenbait formatarako ere. Mitxelenak (1981) eta Ulibarrik bere tesian (2015) proposatutakoari jarraikiz, *-kaz* atzizkia *-gaz* atzizkitik eratorritako berrikuntza dateke: *-gaz* atzizkiaren pluralera hedatzean, *-ak* zein *-ok* artikulua pluralak eta *-gaz* soziatibo-atzizki singularra elkartzearen emaitzak lirateke *-akaz/-okaz* formak. Betolazaren doktrinaren gaztelerazko bertsioari eta honetatik itzulitako euskarazkoari erreparatuz, badirudi zenbait kasutan pluraleko *-kaz* atzizkia darabilela singularreko *-gaz* atzizkia espero denean. Mitxelena berezitasun honetaz ohartu zen, honako azalpen posiblea emanez:

Un detalle chocante es el repetido empleo del plural *-caz* «por los» nueve veces seguidas, al hablar de las «nueve cosas» por las que se perdona el pecado venial,

cuando a todas luces era de esperar el sg. *-gaz*: *Meça ençunacaz*, *Comulgueteacaz*, *berbea ençunacaz*, *Bendiciñoecacaz*, *Pater nosteracaz*, *Confessinoe generalacaz*, *Vr bedeincatuacaz*, *Ogui bedeincatuacaz*, *golpe emonacaz*. Sin embargo, en el encabezamiento dice *bederazi gauçagaz* (indeterminado!) y más arriba *agoagaz* «con la voca» frente a *beguyacaz* «con los ojos», *surracaz* «con las narizes», etc. Parece pues natural pensar, mientras falten otras pruebas, que se trata de algún error, de redacción o de impresión, mejor que admitir que una confusión semejante entre los sufijos de singular y de plural existiera en el habla de aquel entonces. (1955, 47. orr.)

Zuazo (1998) berezitasun honetaz ohartu zuen, *-akaz* atzizkia zegoen testuinguru horietan *-agaz* espero zitekeela adieraziz. Mitxelenaren azalpena erosoena, baina agian erosoegia izan zitekeela adierazi zuen. Aurretiaz Lakarra ere mintzatu zen Betolazaren hizkeraren ezaugarri honi buruz: “Honek sistema aski aldrebesa badu ere bere corpus murrizterako: *-gaz* eta (gutxiago, soilik aditz izenetan?) *-akaz* ditu singularrean, eta *-akaz* pluralean.” (1996, 164. orr.). Kapanagak (1656), Betolazak itzulitako Jerónimo de Ripaldaren doktrina bera itzultzean, *-gaz* erabiltzen du Betolazak *-kaz* atzizkiaz itzulitako kasu haietan, eta Laudioko doktrinan, motibatiboan ageri arren, singularrean ageri dira.

Mitxelenak Betolazaren doktrinan antzemandako berezitasun honen antzeko adibideak ageri dira Lazarragaren eskuizkribuan: *çuegaz*, *oriegaz*, *oegaz*, *guiçonegaz*, *damaogaz* eta *escuogaz*. Kasuotan *-gaz* atzizkia ageri da pluralaren balioaz; Betolazarenean, ostera, pluraleko *-kaz* ageri da singularreko *-gaz* espero zitekeen testuinguruetan. Dagoeneko Zuloaga adibide hauetaz mintzatu izan da: “Lazarragaren eskuizkribuak zertxobait aldatu du mendebaleko soziatiboko atzizkien banaketari buruzko ikuspegia; izan ere, plurala adierazteko *-gaz* (*çuegaz* ‘zuekin’, *escuogaz* ‘eskuekin’), *-okaz* (*berbaocaç*) zein *-ekin* (*oequin*) erabili zituen arabarrak.” (2011, 60. orr.).

Betolazak *-kaz* atzizkiaz eratutako forma berezi haiek itzultzailearen edo inprimatzailearen hutsak izan zein ez, nahiko argi antzeman daiteke Lazarragaren adibideak ez direla autorearen hutsak. Hasteko, Lazarragaren obra eskuz idatzia da, beraz pentsaezina litzateke testuinguru beretsuetan hainbat aldiz huts egitea. Horrez gain, adibideok erakusle (*çuegaz*, *oriegaz*, *oegaz*), zenbatzaile (*baçugaz*) eta izen

arruntekin (*guiçonegaz*, *damaogaz*, *escuogaz*) izateak, autorearen hutsak direlako aukera zailtzen dute. Emandako azken bi adibideek (*damaogaz* eta *escuogaz*) pluralean baino erabil ezin daitekeen artikulua hurbila dutenez, *-gaz* atzizkia pluraleko “damaok” eta “eskuok” formei erantsi bide zaie. Hala balitz, *-gaz* atzizkiak aspaldian soziatibo singular eta pluralaren balioa zukeen. Azken aukera hau bateragarria litzateke Mitxelenak (1981) eta Ulibarrik (2015) proposatutakoarekin: *-akaz* eta *-okaz* atzizkiak *-ak + -gaz > -akaz* eta *-ok + -gaz > -okaz* gertaera fonologikoetatik sortu baldin badira, pluralean *-gaz* atzizkia duten formak gertaera fonologiko horiek baino lehenagokoak lirateke. Lazarragak lan honetan aipatutako formetan baino ez du erabiltzen *-gaz* atzizkia pluraleko formekin; beraz, forma hauek jada arkaismoak lirateke bere hizkeran, eta ordurako *-akaz* eta *-okaz* forma berriek *-gaz* atzizkiaren testuinguruetako bat, soziatibo pluralarena, betetzen zuten.

Betolazaren doktrinara itzuliz, singularrean espero zitezkeen *-akaz* atzizkidun forma haiek itzulpen edo inprimaketa arazoak izan litezke, Mitxelenak proposatu eta Zuazok onetsi bezala. Soilik aditz-izenetan ematen duen *-kaz* atzizkiaren erabilera singularra ere izan liteke, Lakarrak adierazi legez. Alabaina, Lazarragak agertzen dituen *-gaz* atzizkidun forma pluralek, Betolazaren *-kaz* atzizkidun hauekin batera, beste aukera bati atea zabal liezaiokete: soziatiboko *-gaz* atzizkiak garai batean singularreko eta pluraleko balioa izan balu, *-gaz* eta *-kaz* atzizkien arteko nahasketa gerta zitezkeen azken hau hedatze bidean zenean. Mitxelenak frogatu behar du ezean baztertutako aukera honek, Lazarragaren *-gaz* atzizkiaren erabilera aurki lezake balizko euskarri bat. Lazarragaren hizkeran arkaismoak diruditen *-gaz* atzizkidun egitura singularrak *-kaz* berriekin batera agertzeak, *-kaz* guztiz errotuta ez zegoela erakusten duke. Hala, pluraleko *-gaz* eta *-kaz* formak lehian omen zeudela, hauen arteko nahasketa gerta zitezkeen *-kaz* soziatibo pluraleko atzizki gisa errotu arte. Hala balitz, posible litzateke Lazarragaren sorterritik gertuko Betolatzen jaiotako Betolazak, garai beretsuan, *-kaz* atzizkidun forma singularrak diruditenak agertzea. Pluraleko *-kaz* berriaren agerpenak hiperzuzenketarako joera eragin zezakeen, hau da, *-kaz* atzizkia erabiltzea singularreko formetan eta, Lakarrak proposatu bezala, Betolazaren doktrinan aditz-izenetan baino ez gauzatzea fenomeno hau. Kontuak kontu, eta Mitxelenak adierazi legez, frogatu behar du behar lirateke Betolazaren eta Lazarragaren soziatiboko forma hauen azalpenetarako.

Bestalde, Lazarragaren eskuizkribuak *-rekin* eta *-kin* soziatibo-atzizkiak ageri ditu, aipatutako *-gaz* eta *-kaz* atzizkiekin batera. Mendebal gehiengan *-gaz* eta *-kaz* erabiltzen

dira aspalditik (RS-ek, Mikoletak, Viva Jesus doktrinak, Egiaren Kantak etab. erakutsi bezala) eta sortaldean, Deba Ibarraino *-gaz* singularrean eta *-kin* pluralean erabiltzen dira aspalditik, Frai Bartolome eta Mogelen lekukotasunek erakutsi bezala. Deba Ibarretik ekialdera, egun *-(re)kin* erabiltzen da singularrean eta *-kin* pluralean, baina aspaldiko *-gaz* atzizkiaren arrastorik bada, Azkuek Orexan jasotakoak bederen: *guregaz*, *Jaunarengaz*, *Kristorengaz*. Adibideok testuinguruan ikusirik, honako azalpen diakronikoa eman zuen Azkuek:

El sociativo bizcaíno *gaz* y el *kin* de los demás dialectos, que hoy se confunden, debieron de ser distintos en un tiempo, expresando el primero la idea <<por medio de personas o seres animados>>, exactamente como se distinguen en georgiano *Mam'it* nuestro *Aitagaz* <<hacer algo con el padre, valiéndose de él>> y *Mama-t'an* nuestro *Aitarekin*, por ejemplo <<venir en compañía del padre>> (ibidem). (1923, 321-322 orr.)

Azkueren proposamena erabat bateragarria da Mitxelenak (1981, 301. orr.) adierazitakoarekin: “Lo que es propio y exclusivo no es, en todo caso, la desinencia *-z* que es la común de instrumental, sino el elemento *-ga-*, que nunca funciona como una postposición clara: *lagun-a-gaz*, pl. *lagunakaz* (de *lagun-ak-gaz*)”. Bizidunen inesiboko *-gan* atzizkian ageri den *-ga-* artizkiak bizidun tasuna esleitzen dio *-gan* atzizkiari; era berean, *-gaz* atzizkian ageri den artizki berak, *-ga-* artizkiak, aspaldian bizidun tasuna ematen ahal zion *-gaz* atzizkiari, Azkuek adierazitakoarekin bat etorritz. Ondorioz, *-gaz* atzizkia nolabait bizidunen instrumentala izan zitekeen, instrumentaleko *-z* atzizkiari bizidunen *-ga-* tartekatu zitzaizolako. Azkuek adierazitako *-gaz* eta *-kin* atzizkien nahastearen ondorioz, euskalki eta hizkera bakoitzean bata ala bestearen arteko hautua egin zen, tartean *-gaz* atzizkia singularrerako eta *-kin* pluralerako hautatu zituzten hizkerak eta, Lazarragarena kasurako, bata eta bestea gorde zituztenak ere direla. Lazarragaren sorterria zen Larreatik ekialdera, *-gaz* eta *-kin* atzizkiak Araiako Garcia de Albenizen XVIII. mendeko lekukotasunean ere ageri dira. Mende berean, Sabandoko Gamizek ere *-gaz* eta *-kin* ageri ditu.

Zuazok (1999) adierazitakoa berriro ekarriz, Bizkaia eta Gipuzkoaren artean dauden isoglosek Araban barrena jarraitzen zuten. Autore honen arabera, Bizkaiarekin bat egiten zuen Arabako sartaldeak, eta Deba Ibarrekin Arabako erdiguneak. Zuazok adierazitako isoglosen jarraipena betetzen da Arabako sartaldean kokatu zuen

Betolazaren kasuan, Bizkai gehienez ere erabiltzen diren *-gaz* eta *-kaz* soziatibo-atzizkiak agertzen baititu. Barrundia udalerraren barneko Larrea herria, Lazarragaren sorterrria, Arabako erdiguneko hizkeran kokatu zuen Zuazok; beraz, Deba Ibarrean bezala, *-(re)kin* atzizkia agertzen da, *-gaz/-kaz* atzizkiekin batera. Lazarragak *-(re)gaz*, *-kaz* eta *-(re)kin* soziatibo-atzizkiak erabiltzea, Kintanak (2004) eta Erdoziak (2006) adierazitakoarekin lotuta dago: Lazarragarena Bizkaialdeko, Gipuzkoaldeko, Deba ibarreko eta Nafarroa Garaiko hizkeren eragina jaso duen hizkera izatearekin.

Soziatibo-atzizkiari lotuta dagoen “X-rekin Y” egiturak ere Lazarraga eta Betolazaren hizkerak bereizten ditu, azken honek ez baitu gisa honetako egiturarik erabiltzen. Mitxelenak (1964) aipatu zuen lehen aldiz egitura hau eta 1978an honela definitu zuen: “parece una manera más bien retorcida de decir algo que se puede expresar de un modo más simple y directo” (1978, 228. orr.). Lakarrak (1983) fenomeno honen corpus ahalik eta osoena bildu zuen ordura arte aurkitutako 1800 arteko adibide oro jasoz. Mujikak (1991) IS [X eta Y] atz. egituraren parekoa dela adierazten du, maila bereko bi izen lotzen dituen egitura kopulatibo gisa deskribatuz. Honekin batera, salbuespenik gabe bi osagaiak eratutako egitura dela adierazten du, Lazarragaren eskuizkribuko adibideek ere erakusten duten legez: *canpaac bere chapitelagaz*, *az chiquirra vioçagaz*, *pabaneagaz baja*, *errelleagaz goldea*, *çuregaz ene secretoa*, *Doridogaz Silveroren bervac*, *ysasoorrec horve guztiaz*, *donzellaquin flordeliçac*, *Pisaquin Florencia*, *Pullalequin Ferrera*, *Toscanarequin Lonbardia*.

Adibide hauetako bik (*canpaac bere chapitelagaz* eta *az chiquirra vioçagaz*) egitura honi buruzko informazio berria ekarri zuten, Mujikak Lazarragaren eskuizkribua aurkitu baino lehen adierazitakoaren salbuespen gisa agertuz: “Osagaion ordena, bestalde, bat da beti: *-ekin* atzizkia daraman izenak sintagmaren lehen burua hartzen du beti, bigarrenak sintagma osoari dagokion atzizkia bereganatzen duelarik. Hau, da, beraz, egitura: IS [X-rekin Y] atzizkia” (1991, 1031. orr.). Lazarragaren bi adibide hauek “X-rekin Y” egituraren beste aldaera bat erakusten dute, soziatibo-atzizkia bigarren osagaiak jasotzen duela: “X Y-gaz”. Egitura honekin batera, lekukotasunetan ugariagoa den “X-rekin Y” ere erabiltzen du, egitura honen aldaera batean zein bestean *-gaz* atzizkia baliatuz.

Lazarragaren eskuizkribua agertu aurreko lekukotasunek erakusten dutenez, “X-rekin Y” egituraren bigarren osagaiak (soziatibo-atzizkia jasotzen ez duenak) kasu marka eta

postposizio ezberdinak jaso ditzake. Honen erakusgarri dira Lakarrak (1983) jasotako *urrearekin zilarrez, Nere buruarequin dama gazte bati eta Surequin nere gaisean* adibideak, eta Arruek (1858) dakartzanak (hala nola, *amacquin bere seme-alabentzat*). 1609ko Elorrioko maitasun kantan *ene veguiacaz vioçeen artean* ageri da. Lazarragaren adibideetan, soziatibo-atzizkia jasotzen ez duen osagaia absolutiboan baizik ez da ageri.

Mujikak (1991) adierazitakoari jarraikiz, sintagma kasu absolutibo, ergatibo edo datiboan dagoenean, sintagmaren eta aditzaren arteko komunztadura gorde behar denez, aditza pluralean doa beti, baita sintagma singularrean dagoenean ere. Lazarragaren adibideetan, ordea, aditza pluralean agertzea espero denean, singularrean ageri da:

Garcilaso traidoreac aguindu eben undaetan / az chiquirra vioçagaz lecarroela señaletan, ... (lecarroela = ‘ekar ziezaiotela’)

Doridogaz Silveroren bervac / cerren ez even sinistu. (even = ‘zuen’)

Itxuraz sintagmaren eta aditzaren arteko komunztadura ezak Mujikak adierazitakoa ezezta dezakeen arren, bestelako azalpena du adibide hauetako aditzak singularrean agertzeak. Kintanak (2004) ohartarazi bezala, Lazarragaren eskuizkribuan aditz iragankorrek ez dute nahitaez komunztadura egiten objektu pluralarekin, eta honen adibide gisa *quendu eben bere jaztecoac* eman zuen. Ondorengo adierazpenean ere fenomeno honetaz mintzatu zen: “objektu pluralaren marka aditzean nahitaez eranstea beranduko fenomeno baldin bada, - gogoan ukan Lazarragaren denboran eskualde horretan behintzat oraindik aukerakoa zela marka hori ezartzea edo ez ezartzea -, (...)” (2004, 593. orr.). Hortaz, Lazarragaren eskuizkribuko “X-gaz Y” eta “X Y-gaz” egituren ondotiko adizki singularrak, objektu pluralaren marka aditzean ezartzea aukerakoa izateari zor zaizkio.

3.2.2.5. Instrumentala

Soziatiboaren eta instrumentalaren erabilerek Betolazaren eta Lazarragaren hizkeren arteko beste ezberdintasun bat erakusten dute. Betolazak ongi bereizten ditu bi kasu hauek, bakoitza espero zaion testuinguruan emanez. Gainera, instrumentala sarri erabiltzen du, beste hizkera batzuetan bestelako postposizioak erabiltzen diren testuinguruetan ere:

- *çure gueyez gagoz* (‘zuri deika ari gara’)

- *Lelengoa, sinistetea Iesu-Christo gure Iauna Guiçonzan partez concebidua yzançala Espiritu Santuen obraz.*
- *gauza guztiez ganeti.*

Lazarragak, aldiz, ez ditu elkarrengandik erabat bereizten sozietiboa eta instrumentala.

Batetik, -gaz atzizkia darabil instrumentalari egokitzen ohi zaion zenbait inguruetan:

- *onezquero ez ditecen amoreagaz burladu*
- *Doncellachoa, orain çaoz / soberviagaz beteric*

Zalantzazko beste adibide batean, -gaz atzizkia instrumentalaren zein motibatiboaren ohiko testuinguru batean erabiltzen du:

- *cerren eocen / larrin guztiaç beteric / persona ascoz / içurriagaz gaxoric*

Bestetik, zenbaitetan -z atzizkia sozietiboaren balioarekin erabiltzen du. Gertaera hau arestian aipatutakoa baino ugariagoa da eskuizkribuan:

- *Osaba jaunaz ezpaceonça (ezpaceonça = ‘egongo ez bazina’)*
- *Ceruco Jaunaz, oyta, Sirena, / gueratu, bada, çatez çu*
- *Andra dichabagueau, barriz, sei ilecoaz maiaetan*
- *bere buruaz bervaetan*
- *bere semeaz concertadu*
- *Cerren ez dago / norc socorridu jenteric / cerren eocen içurriteaz urtenic*

Azken adibide honetan, sozietiboaren balioaz gain, motibatiboarena ere izan lezake -z atzizkiak. Lazarragaren ezaugarri honetaz mintzatu zen Salaberri Zaratiegi: “Inoiz -az ere badu, instrumentala edo -agaz-en aldaera laburtua” (2004, 543. orr.). Honekin batera, instrumentalaren ohiko testuinguruetan ageri diren -gaz atzizkiak osatutako formak aipatzen ditu, kasu sozietiboa eta instrumentala nahasten zituelako seinale direla adieraziz. Goikoetxeak (1982) adierazi bezala, Gamizek ere -az erabiltzen du sozietiboko -gaz edo -kin espero diren testuinguruan: *Almorzu ona erango degu / tortillaonbat urdaiaz / probechu andi egingoduzco / campu zabaltasunaz.*

Sozietiboaren eta instrumentalaren arteko nahasketa hau ez da bitxia. Gaur egun, ‘gustatu’, ‘gogoratu’, ‘akordatu’, ‘oroitu’, ‘pentsatu’, ‘maitemindu’ eta ‘konturatu’ bezalako hainbat aditzek, hizkeraren arabera ZERTAZ/NORTAZ zein ZEREKIN/NOREKIN kasuak onartzen dituzte. Lazarragaren eskuizkribuak sozietibo eta instrumentalaren arteko nahasketa aspaldikoa dela erakusten du.

Honek zenbait azalpen izan litzake eta, hauetako bat litzateke sozietiboaren eta instrumentalaren arteko nahasketa, batoren zein bestearen aldeko hautua egitearen ondorio izatea. Gaur egun, arestian aipatutako aditzak sozietiboan erabiltzen diren hizkeretan, instrumentalaren erabilera urriak aditzok sozietiboan erabiltzera bultzatuz gero hiztunak. Ondorioz, sozietiboak instrumentalaren zenbait testuinguru hartuko litzake. Hala izatekotan, Lazarragaren eskuizkribuak kasuetako baten erabilera urria erakutsiko luke, bestearen mesedetan. Ordea, bi autoreen testuek atzizki instrumentalaren eta sozietiboaren erabilera oparoa erakusten dute, bereziki instrumentalarena, Igartuak eta Santaziliak (2013) biltzen dituzten testuinguruetakoa askotan jasoz. Beraz, komenigarria dirudi aukera hau baztertea.

Beste aukera bat litzateke, Lazarragaren eskuizkribuan *-az* atzizkiaren ageri diren sozietiboko formak, Azkuek (1923) eta Mitxelena (1981) proposatutako *-gaz* atzizkiaren jatorri etimologikoarekin eta atzizki honek jatorriz adierazten zuenarekin zerikusia izatea. Mitxelena iradoki bezala, sozietiboko *-gaz* atzizkia bizidun tasuna duen *-ga-* atzizkiaren eta instrumentaleko *-z* atzizkiaren eratu zen edo, bestela esanda, *-z* atzizkiari *-ga-* erantsi zitzaion. Baieztapen hau ontzat harturik, baliteke Lazarragaren *Jaunaz* bezalako sozietiboko formak *-ga-* atzizkia *-z* atzizkiari erantsi baino lehenagoko formak izatea. Hala balitz, *-gaz* sortu aurreko *-z* instrumental hutsaz sortutako sozietiboko formak lirateke, Lazarragaren eskuizkribuan dagoeneko arkaismo zitezkeenak. Bestalde, Lazarragak *-gaz* atzizkiaren idatzitako *amoreagaz* eta *soberviagaz* bezalako forma instrumentalak hiperzuzenketaren ondorio izan litezke. Halere, aukera honek oinarri sendoagoak beharko litzake.

Beste azalpen posible bat litzateke sozietiboak eta instrumentalak adierazten dutenaren arteko antzekotasunak bien arteko nahasketa eragitea. Halako nahasketak gertatu izan dira euskaraz; gogora bedi ablatibo eta prosekutiboaren arteko nahasketak *-tik* ablatibo berria ekarri zuela. Salaberri Zaratiegik proposatutako aukera hau Mitxelena (1981) adierazitakoarekin bat datorke, alegia, *-gaz* atzizkia *-ga-* eta *-z* atzizkien baturaz osatu zela. Sozietiboko *-gaz* atzizkia instrumentaleko atzizkiaren gainean eraikia baldin bada, batak eta besteak adierazitakoak antzekoak behar dute izan, bien arteko nahasketa ahalbidetuz.

Nahiz eta sozietiboak eta instrumentalak balio eta erabilera bereziak izan, testuinguru jakin batzuetan bata zein bestea erabiltzeko aukera dago; hala, Euskal Gramatika

Laburrean adierazten denari jarraituz, “Zenbait tokitan, instrumentala guti erabiltzen baita, normalean instrumentala eskatuko luketen zenbait aditz sozietiboarekin erabili ohi da” (*EGLU I*, 289. orr.) *mailuarekin jo* eta *mailuaz jo*. Bistan da *EGLU*-n adierazitakoak ez duela kontu hau argitzen, eskuizkribuko sozietibo eta instrumentalaren forma berezi haiek ez baitira halako testuinguruan agertzen. Alabaina, baliteke aspaldian beste zenbait testuingurutan, sozietiboaz gain, instrumentala ere erabiltzea zilegi izatea. Kasu honetan, instrumentalaren ohiko testuinguru batean ageri diren *amoreagaz* eta *soberviagaz* bezalakoak hiperzuzenketaren ondorio izan litezke.

Beste aukera bat bada ere, ez dirudi *Jaunagaz* > *Jauna(g)az* > *Jaunaz* gisako erorketa eta asimilaziorik gertatu denik. Batez ere ahozko hizkuntzari lotzen zaizkio mota honetako asimilazioak. Lazarragaren eskuizkribuan ohikoak dira *eocen* (< egozen, ‘zeuden’) erako kontsonante erorketak. Halere, *-gaz* ugari erabiltzen duenez, zaila da pentsatzen hain adibide gutxitan *-agaz* > *-az* asimilazioa gertatzea; are zailagoa, beraz, bien tarteko *-aaz* forma zatekeenaren adibiderik ez bada. Halere, Salaberrik adierazi legez, baliteke *-az* atzizki haiek instrumentalarekin zerikusirik ez zuketean *-gaz* atzizkiaren aldaera laburtuak izatea, baina aukera honek azalpenik gabe utziko lituzke *-gaz* atzizkia duten instrumentaleko *amoreagaz* eta *soberviagaz* formak.

Honenbestez, Lazarragak bi kasuen arteko nahasketa erakusten duela adieraztea litzateke zuhurrena. Halere, azalpen zehatzago bat litzateke haren hizkeran, zenbait testuingurutan, instrumentala eta sozietiboa erabiltzea aukerazkoa izatea, eta hiperzuzenketaren ondorioz, espero ez den kasua erabiltzea zenbaitetan.

3.2.2.6. Pluralaren adierazpena zenbait atzizkitan

Idazleek kasu bakoitzean ageri dituzten berezitasunez gaindi, bada zenbait kasutan ageri den berezitasun bat. Betolazak sozietiboan, motibatiboan eta bizidunen inesibo, adlatibo eta ablatiboan, aurretik genitibo-atzizkirik ez duten formak erabiltzen ditu: *-gaiti*, *-gaz*, *-gan*, *-gana* eta *-ganik*. Kasu hauen atzizkiak mendebal zabalean aspalditik ageri dira genitibo-atzizkirik gabe, baina ekialdean ere lekukotzen dira: Etxeparek *gugatic*, *gure gaizquiegatic*, *othoiegatic*, *hargana*, *gugana* eta *semiaganic* bezalako adibideak ageri ditu, eta Leizarragak *gure gorputzacgatic*. Mendebaleko eta ekialdeko testurik zaharretan genitiborik gabeko formak ageri direnez, kasu hauetan genitibo-atzizkia agertzea berrikuntza izan zitekeen. Genitiboa ageri duten formetan, genitibo-atzizkiaren

numeroak esleitzen dio singular edo pluraltasuna sintagma osoari: lagunarengana/lagunengana, lagunarekin/lagunekin, lagunarengatik/lagunengatik, etab. Betolazaren kasu hauetan genitibo-atzizkirik ez dagoenez, formaren aldetik ez da bereizketarik ageri singularreko eta pluraleko kasu hauen artean. Ezaugarri hau Bizkaiko euskaran ere ageri ohi da, baina singularreko eta pluraleko formak bereizteko beste bide bat erabiltzen ohi da: *-ak* artikulu pluralari atzizkia eranstean, singularrekoak ez bezalako formak eratzen dira. Gertaera hau beraz erakusten du soziatiboaz jardutean azaldutako *lagun-a-gaz* (sing.) eta *lagun-ak-gaz* (>*lagunakaz*) (pl.) adibideen arteko bereizketa formalak. Era berean, Bizkaiko euskaran *lagunagaitik* (sing.) eta *lagunakaitik* (lagun-ak-gaitik) bereizten dira. Betolazaren doktrinara itzuliz, aipatutako kasuen bizidunen forma plural gutxietan, bestelako bide bat erabiltzen da singularra eta plurala bereizteko. Bizidunen ablatiboaren lau adibideetatik, singularrak diren hiruretan *-ganik* erabiltzen du (*deungueaganic*, *Birgineaganic*, (azken hau birritan), eta pluraleko adibidean *-etarik* (*arerioetaric*). Ematen du, beraz, bizidunen ablatibo plurala singularretik bereizteko, bizigabeen ablatibo pluraleko *-etarik* atzizkira jotzen duela. Laudioko doktrinan jokabide bera ikusten da:

gustioc eredadu gendun gueure lelengo guresoetaric.
gueure arerioetaric libredu gaguisus

Halaber, pluraleko atzizkirik ezarekin zerikusia izan dezakete motibatibo pluraleko *gu becatarioc gayti*, *hilac gayti*, *viciac gayti* eta *gu gaytic*. Adibideok *gaiti* atzizki gisa erantsi aurreko forma beregaina erakuts lezakete, baina *gaiti* jasotzen duen hitzaren pluraltasuna agertzeko modua ere izan liteke, *-ak/-ok* pluralgileak agerian utziz. Halere, ezin da ziurtasun osoz adierazi plurala agertzeko modua denik, zaila baita ezagutzen singularrean dakartzan *errua gayti* eta *andia gayti* adibideetan *gaiti* loturik ala banandurik dagoen. Elorrioko 1609ko maitasun kantan, plurala den *ahec gayti* lekukotzen da, baina Laudioko doktrinan *señalia gaitic*, *joitia gaitic* eta *se gaitic* bezalako forma singularrak daude, baita *Birjina ganic* eta *gueu gana* ere. Pluralean ere, Betolazak dakartzanen parekoak ageri dira Laudiokoan: *bisiec eta ilec gaitic*, *criaturec gaitic*. Beraz, atzizki beregainak baino, atzizkiak banaturik idazteko joera edo ohituraren erakusgarri omen dira adibide hauek.

Tamalez, Betolazak ez du bizidunen ablatibo, inesibo eta helburuzko forma pluralik ageri pluraltasun hura nola adieraziko zuen ezagutzeko. Lazarragaren eskuizkribuan, adibide guztietan ez bada ere, genitibo-atzizkirik gabe ageri dira bizidunen ablatibo-,

adlatibo- eta inesibo-atzizkiak, soziatibokoak eta motibatibokoak. Ondorioz, kasu hauetan ere atzizki berak izango zituzkeen singularrean eta pluralean. Ez du bizidunen ablatibo pluraleko forma erakuts diezagukeen adibiderik ageri, bai ordea bizidunen inesibo pluralarenak. *Çu lacoagan ez leuque bear crrueldadeac parteric* adibidean -gan atzizkia pluralean omen darabil, singularrean forma bera erabiltzen duela: *Cerucoagan, laztanchoagan*. Beste zenbait adibidetan gertakari bera ager liteke, baina ez da guztiz argia pluralean direnik, hala dirudien arren, mugagabeen ere izan daitezkeelako:

Bada vere, ceure borondate ori bestegan daucaçuna leguez

Bere burua bearr leuque / efini corregiduric / lenaengo ta guero juzgadu bestegan baliz tacharic

Bizidunen inesibo pluralarekin jarraituz, Lazarragarenean pluraltasuna agertzeko beste bide bat antzeman daiteke:

neure buruan ez nei ondo / andratan confiaçea

Çerren dioçu secretoric / oy andraetan ez dala

Andraetan discreçioric / ez dala uste al doçu

dama galantac ni ez nax digno / ez dot meresçimenturic / çuetan miiiau ifinteraco

Adibideok erakutsi bezala, Lazarragak bizigabeen inesibo pluraleko atzizkira jotzen du bizidunen inesibo plurala adierazteko. Halaber, bizigabeen atzizki plurala erabiltzen du bizidunen adlatibo pluralerako: *oçac bere bay canpuan / oy çuetara joan joaçen orduan*. Soziatiboaz mintzatzean, -gaz atzizkia bizidunen -ga- tartizkiaz eta -z instrumentalaz osatua dela azaldu da. Azalpen honetatik eta -gaz eta -kin atzizkiek adiera desberdinak zituztelako ideiatik (Azkue, 1923), -gaz atzizkia antzina soilik bizidunekin erabiltzen zela ondoriozta liteke (bestela ez luke bizidun tasuna esleitzen duen -ga- tartizkirik izango). Azkuek Orexan jasotako *guregaz ai die (ari dire) “se ocupan de nosotros”*, Jaunarengaz *“acerca del señor”* eta Kristorengaz *“acerca de Cristo”* adibideek eta Azkuek berak emandako itzulpenek, NORTAZ kasuaren ohiko testuinguruan erakusten dute -gaz atzizkia, alegia, bizidunen instrumentalaren balioaz. Hargatik, bizidunak direnez, bizidunen -ga- morfema duen -re(n)gaz forma ageri dute. Soziatiboari buruzko atalean adierazi legez, -gaz bizidunen soziatiboa izan zitekeen. Arestian adierazitakoa beteko balitz, aitzinago nolabait bizidunen instrumentala ere izan zitekeen. Hala balitz, bizidun tasuna galduz gero, -z instrumentalaren testuinguru berak hartuko zituzkeen, soziatiboaren balioa hartu baino lehen. Orduan, soziatiboaren eta instrumentalaren arteko nahasketa, -gaz atzizkiak -z instrumentaletik bereizten ahal zuen ezaugarria

(bizidun tasuna) galtzearen ondorioa litzateke. Pluraleko formarik eza bizidunen *-ga-* atzizkia duten kasuetan ageri dela kontuan hartuz, sozietiboko *-gaz* atzizkian ere ezaugarri bera agertzea ez da hain bitxia suertatzen. Lazarragaren eskuizkribuan sozietibo plurala adierazteko *-kaz* ageri da gehienetan, Bizkaiko euskaran maiz gertatzen den [*-ak + -gaz, -gan, -gana, -ganik, -gaiti > -akaz, -akana, -akaiti ...*] fenomeno beraren ondorioz, pluralerako singularrak ez bezalako formak sortuz. *-Gan* atzizkia singularrean zein pluralean erabiltzen duen bezala, sozietiboan ere *-gaz* erabiltzen du singularrean zein pluralean. Laudioko 1858ko doktrinan ere halakorik aurkitzen da, *-gaz* sozietibo plural legez erabilia: *Eta usu errasoecora eldu asquerosoac, gasso peligruscoagas arquituten badire*. Hortaz, sozietiboaren atalean adierazitako *escuogaz* eta *damaogaz* formak Betolaza eta Lazarragaren ezaugarri orokor honekin loturik leudeke: bizidun tasuna duten kasuetako atzizkiek ez dute pluraleko bere-berezko formarik, eta nolabaiteko defektibotasun honen aurrean, hiru bide hartu dituzte bizidunen pluraleko formak adierazteko:

1. Forma bera erabiltzea singularrean zein pluralean: çu *lacoagan* (pl) vs *Cerucoagan* (sing.).
2. [*-ak/-ok + -gaz > -akaz/-okaz*] sozietiborako (Bizkaiko euskaran beste kasu batzuetara hedatu den fusioa).
3. Bizigabeen forma pluralak erabiltzea bizidun pluralak adierazteko: *arerioetariç* (Betolaza), *çuetara, andraetan* (Lazarraga). Honelako egiturak ekialdeko euskaran ere ugari erabiltzen dira.

Bistan denez, lehenengo bidea Lazarragak baino ez du ageri. Betolazak eta Lazarragak bigarren bidearen alde egin dute sozietiboan, eta Lazarragak sozietiborako batzuetan lehen bidea hartu du. Hirugarren bidea bi idazleek erakusten dute, bakoitzak bizidunen kasu ezberdinetan.

Lazarraga eta Betolazaren sozietiboan eta bizidunen ablatibo, inesibo eta adlatiboan ageri diren berezitasun hauek motibatiboan ere ageri dira. Adierazi bezala, motibatiboko *-gaiti* atzizkiak ere genitibo-atzizkirik gabe ageri dira Betolazarenean eta Lazarragarenean (azken honetan ez beti). Honen ondorioz, aipatutako beste kasuetan bezala, motibatibo-atzizkiak ez du singularra eta pluralaren arteko bereizketarik erakusten. Honen aurrean, arestian adierazitako bideen artean, Lazarragak lehenaren alde egiten du; alegia, *-arren* atzizkiaz eratutakoak alde batera utziz, forma bera darabil motibatibo singularra eta plurala adierazteko: *onegati, cegati* (singularrak); *arçaiægati,*

çuegati (pluralak). Arabatik irten gabe, Garcia de Albenizen lekukotasunean *-gaitik* motibatibo-atzizkia ageri da pluralean: *ceñac mereci deudan neure pecatuagaitic*. Halaber, Etxeparek *çure othoiegatic*, *gure gaizquiegatic*, *orai eguiten diraden gayzqui handiegatic* adibideak dakartza. Adibide hauetan *-egatik* ageri da, eta Lazarragaren *çuegati* eta *arçaiægati* forma pluralekin loturik egon litezke; ondorioz, *-egati(k)* amaierak motibatibo plurala adieraz zezakeen. Leizarragak *gure gorputzacgatic* ageri du eta, Altunak (1995) adierazi bezala, Tolosaldeko Alkiza herriko Irazustak bere doktrinaren lehen edizioan *mesede recibitu ditudanagatic*, *criaturagatic*, *principalagatic*, *pecatuagatic* eta *mercimentu infinitoagatic* adibideak dakartza, denak pluralean.

Fenomeno honen beste azalpen posible batek Lakarrak (2013) proposatutako *-ak* artikulu pluralaren jatorrizko *-aga* formarekin zerikusia du: *-aga + gaz > -aga-gaz > ag-gaz > agaz* eta honen pareko fusioak gerta zitezkeen aipatutako atzizkietan. Hala balitz, [*-aga + -gan > aga-gan > ag-gan > agan*], [*-aga + -gaiti > -aga-gaiti > -ag-gaiti > -agaiti*] bezalako bilakabidea izan zezaketen atzizki hauek artikulu plural zaharrari lotzean, singularrean ageri duten forma berarekin.

Motibatibo plurala adierazteko formek kidetasuna erakusten dute bizidunen inesibo, bizidunen ablatibo eta bizidunen adlatibo pluralak adierazteko formekin eta jatorriz biziduntzat eman den *-gaz* soziatiboaren pluraleko formekin. Kidetasun honek, motibatiboko *-gaiti* atzizkiak eta bizidunen markatzat hartzen den *-ga-* tartizkiak jatorri bera dutela planteatzera eramán gaitzake. Zehazki, *-ga-* tartizkia jatorriz *gai* izena izan daitekeela. Motibatiboa sortzeko *gai* izenari *-ti* erantsi zitzaion bezala, agian soziatiboa sortzeko *gai* izenari *-z* instrumentala erantsi zitzaion. Hala, Azkuek jasotako *Jaunarengaz “acerca de Dios”* eta *guregaz ai die “se ocupan de nosotros”* bezalako adibideak, funtsean **Jauna-ren-gai-z* eta **gu-re-gai-z* zitezkeen, *gai* horiek *Jauna* eta *gu* izanik. Lakarrak (2013) **-gan-ez > *-gaez > *-gaiz > -gaz* proposatu zuen atzizki honen jatorrirako. Ostera, lan honetan *gai-z* osaera proposatu da eta *gaiz > gaz* soiltzea hitzaren azken silaba izatearekin lotu da, soiltzerako testuinguru aproposa baita. Fenomeno bera agertzen ahal da bizidunen inesiboan, bizidunen ablatiboan, bizidunen adlatiboan eta bizidunen helburuzkoan. Hala balitz, motibatiboko *gaiti* formaren pareko **gaiz*, **gain*, **gaina* **gainik* eta **gainako* formak izango zituzketen soziatiboak, bizidunen inesiboak, bizidunen adlatiboak, bizidunen ablatiboak eta bizidunen

helburuzkoak, hurrenez hurren. Forma hipotetiko hauetako *-i-* galdu ahal izan zen, motibatiboan mendebaletik kanpo gertatu zen bezalaxe: *gaiti* > *gati*.

Bizidunen inesiborako proposatutako **gain*, gaur egungo *gain* hitza izan liteke, eta jatorriz *gai* + *-n* osaera izan zezakeen. Trasken (1997) *gain* edo **gani* proposatu zituen inesibo zaharrerako formatzat. Izan ere, mendebalean *gain* > *gan* soiltzea egin da, eta soiltze hura gerta zekiokoen *-gan* atzizkiari. Lakarrak (2013) aukera honen arazo bezala planteatu zuen *gain* > *gan* soiltzea bakarrik mendebaleko euskararen gertatzea. Lan honetan soiltze hau *gain* atzizki bezala finkatzean gertatu zela proposatzen da. **Gaiz* > *gaz* soiltzerako proposatu legez, **gain* atzizki izanik, *gain* > *gan* soiltzea hitzaren amaiera izatearekin loturik egon liteke, soiltze hau gertatzeko testuinguru aproposa baita. Hala, *gain* izen beregain bezala ageri duten egituretan ez omen zen soiltze hura jazo (*nire gain*, *zure gain*, *gure gain* etab.). *Gain* > *gan* soiltzearen aldeko adibidea izan liteke *beregain* hitza. [*bere* + *gain* > *beregain*] jatorri etimologikoa duela suposatuz, honekin batera **zuregain* eta **guregain* bezalakoak bazirela pentsa liteke, kontuan hartuz *gain* banandurik duten *zure gain* eta *gure gain* bezalakoak badirela oraindik ere. *Beregain* hitzaren adiera zertxobait aldatu bada ere, *beregan* hitza bera dela antzeman daiteke, fosilizatutako forma zaharragoan.

Bizidunen adlatiborako eta bizidunen ablatiborako proposatu diren **gaina* eta **gainik* formak **gain-a* eta **gain-(r)ik* lirakeke, *-a* adlatibo-atzizkia eta *-(r)ik* ablatibo zaharra ageriz. Ulibarrik (2015) adierazi bezala, Kapanaga eta Arzadunek *gugaña* (< **gugaina*) eta *Virjineagañic* (< *Virjineagainik*) ageri dituzte, eta Barrutiak *zugainic* eta *Virjineagainic* dakartza. Azaldu bezala, azken silaba izateak *gain* > *gan* eragin bide zuen, baina badirudi *gaina* > *gana* eta *gainik* > *ganik* beranduago gertatu zirela, kasu hauen adibide gehiago baitago. Izan ere, Ulibarrik *-i-* tartean duten atzizkien formak Bizkaiko ipar-erdialdean bizirik dirautela adierazten du, eremu zabalagoko berrikuntzak zirela adieraziz. Ostera, arkaismo itxura duen *beregain* hitzak eta aurrerago emango diren adibideek, tartean *-i-* duten formak zaharragoak izan daitezkeela pentsaraz dezakete. Bizidunen adlatiborako proposatutako **gaina* hitz beregain bezala mantendu ei da egungo *gainera* forman, *-ra* adlatibo-atzizkia kontsonantez amaitutako hitzetara hedatu ondoren, *-e-* epentetikoa tartekatuz. Bizidunen ablatiborako proposatutako **gainik* hitza egungo *gainetik* bide da, *-tik* ablatibo berriaz eratua, eta egungo *gaindi*, jatorriz **gai-n-ti* litzateke, [t > d / in_] gertatu zela. Era berean, egungo *gainean* hitza *gai-n-e-an* izan liteke, inesibo marka erreduplikazio bidez bi aldiz ageriz. Hala,

Etxeparek agertzen duen *ama ororen gaynian, bat bederac pensa veça arimaren gaynian* eta *gende onac onsa pensa iuge hunen gaynian* adibideak ‘ama ororengan’, ‘arimarengan’ eta ‘honengan’ formen parekoak lirateke. Are gehiago, adibide hauek *gain* > *gan* mendebaletik kanpo atzizkietan soilik gertatu zelako proposamenaren alde egiten dute. Bizidunen helburuzkoari dagokionez, **gainako* formaren lekukotasuna izan liteke Plentziako Renteriaren *zuec gañaco* adibidea (Ulibarri, 2015, 297. orr.).

Hipotesi honek beste ondorio bat lekarke: *-ga-* tartizkiak jatorriz bizidun tasuna baino adiera zabalagoa izan zezakeen.

4. ONDORIOAK

Lan honetatik atera diren ondorioak, Betolazaren doktrinaren luzerak eta perpausen egitura errepikakorrek baldintzatzen dituzte. Ondorioz, Betolazaren doktrinak ez du haren hizkeraren izen morfologiako zenbait kasuren adibiderik ageri, hauen artean hurbiltze adlatiboa, muga adlatiboa, destinatiboa eta prolatiboa.

Lazarragaren eta Betolazaren izen morfologiak kidetasun handia agertzen dute. Ezberdintasun nabarmenenak ablatibo eta soziatiboko atzizkietan ageri dira. Lazarragak *-rean* erabiltzen du nagusiki, leku izenak eta denborazkoak salbu. Betolazaren hizkerak ablatiboaren *-rik* berrikuntza ageri du, *-rean* atzizkiaren testuinguru guztiak betez. Bestalde, Gasteizko Landuchioren hiztegiak, Larreako Lazarragak eta Mañariako Kapanagak *-rean* ageri dute. Hortaz, hiru herri hauen iraganbidean dagoen Betolatza herriko Betolaza berritzaile ageri da. Lakarrak 1986an adierazitakoa berriz ekarriz, *-rean* atzizkiaren ordezkapena *-rik* berriaren alde ez zen modu berean gertatu ez sistema osoan ez azpieuskalki guztietan ere. Ordezkapen hau eremu bakoitzean garai ezberdinetan gertatu zela erakusten du Betolazak, lekukotasun berririk agertu ezean, haren doktrina baita *-rean* atzizkia dagoeneko ihartuta ageri duen mendebaleko lekukotasunik zaharrena.

Soziatiboari dagokionez, Betolazaren hizkeran *-gaz/-kaz* soziatibo-atzizkiak baizik ez dira ageri, eta Lazarragarenean aukerakoak dira *-(re)gaz* eta *-(re)kin*. Lazarragaren zenbait atzizkiren formak ez dira argiak, eta ondorioz ezin adieraz daiteke ziurtasun osoz zein kasukoak diren, edo plurala ala singularra adierazten duten. Hauetako batzuk formaren aldetik instrumentalak direla ematen du, *-az* forma ageri dutelako, baina soziatiboaren balioa erakusten dute. Beraz, soziatiboaren funtzioa duen *-az* atzizkia izan daiteke, baina baita *-agaz* > *-a(g)az* > *-az* asimilazioaren ondoriozko *-gaz* soziatibo-

atzizkiaren formak. Hauekin batera balio instrumentala duten *-agaz* atzizkiaren adibideak ageri dituzenez, Lazarragak bi kasuak nahasten zituela da atera daitekeen ondorioz ziurrena. Lazarragak sozietiboko *-gaz* singularrerako eta pluralerako erabiltzen du, eta Betolazak, berriz, *-kaz* singularrekoa dirudien testuinguru batean erabiltzen du, baina inprentako akatsa izan daiteke. Ondorioz, argitzeke geratzen da idazle bataren eta bestearen berezitasun hauek erlaziorik ote duten, zerk eragin dituen eta kasuen arteko nahaste hutsa baino zerbait gehiago den. Sozietiboarekin jarraituz, Lazarragak erabiltzen dituen “X-rekin Y” egiturak garai ezberdinetan eta elkarrengandik urrun dauden hizkeretan lekukotuta daude, Bilbo inguruko *Refranes y Sentencias* (1596) eta Hernaniko Arruek (1858) erakusten duten bezala. Halere, Lazarragari esker badakigu euskara osoko edo behintzat eremu zabal bateko gramatika-egitura zahar hau Araban ere zela, eta egitura honen “X-gaz Y” aldaeraren berri izan dugu. Bestalde, sozietiboaren eta instrumentalaren nahasketa bi autoreetan ageri denez, bien hizkeren ezaugarri bateratzailea dateke, egun ere gertakari nahiko arrunta izan arren.

Gainerako kasuetan, euskara osokoak edo eremu zabaletakoak diren atzizki eta formez gain, motibatiboan ageri dute kidetasun berezia: bi autoreek erabiltzen dituzte *-ga(i)ti* eta *-arren*, eta hauen gainean eraikitako *-gaitiarren* pleonasma.

Betolazaren eta Lazarragaren lanetan, zenbait kasuetako atzizkiek ez dute pluraleko forma bereizgarririk. Kasu hauek bizidunen inesiboa, bizidunen ablatiboa, bizidunen adlatiboa eta motibatiboa dira, sozietiboan zenbaitetan ezaugarri hau ere ematen dela. Kasu hauek pluraleko atzizki bereizgarririk ez dutenez, adibide batzuetan forma bera ageri dute atzizki singularrek eta pluralek, numeroa ezagutzea zailduz. Halere, bestelako bideak hartu dituzte bi idazleek kasu hauetan pluraltasuna adierazteko, gehienetan kasu hauen bizigabeen atzizki plurala erabiliz. Sozietiboan bereziki, plurala adierazteko, atzizkia artikulatu pluralari eranstea *-akaz* sozietibo-atzizki plurala sortu da, singularreko *-agaz* atzizkitik bereizten dena.

Gehienetan atzizkien forma beretsuak erabiltzen dituztenez, gutxi dira Betolazaren eta Lazarragaren hizkerak jaso dituzten eraginak erakusten dituzten atzizkiak. Halere, Betolazaren izen morfologiak mendebalarekiko gertutasun gehiago duela ondorioztatzen da zenbait kasu-atzizkiren forma eta erabilera aztertzean. Betolazak darabiltzan *-gaz* eta *-kaz* mendebaldean lekukotzen diren sozietibo-atzizki bakarrak dira.

Ablatiboan *-ti* ez agertzea ere mendebaldeko euskararen ezaugarria izan zen XVIII. mendera arte. Lazarragaren izen morfologian, aldiz, ekialdeko eragina nabaritzen da: Arabako ekialdean lekukotutako *-gaz/-kaz* eta *-kin* atzizkiak ditu, eta ablatiborako *-ti* erabiltzea erdialde eta ekialdeko berrikuntza izan zen. Mendebaldean lekukotzen ez den *-tika* atzizkia ere ekialdeko eraginaren erakusgarri da. Motibatiboko *-gati* (< *-gaiti*) ekialdeko berrikuntza da. Atal honen hasieran adierazi denez, soziatiboa eta ablatiboa dira autore hauen artean ezberdintasun gehien ageri dituzten kasuak. Lakarrak (1984) bizkaierazko deklinabidea beste euskalkietako deklinabidetik gehien urruntzen zuten kasuak ablatiboa eta soziatiboa zela adierazi zuen. Betolaza eta Lazarragaren deklinabideetatik ondorio bera ateratzea ez da harrizkoa, kontuan harturik Betolazarenak mendebaleko euskaratik gertuagoko formak ageri dituela eta Lazarragarenak ekialdeko eragina ageri duela.

Lan honetatik zenbait ondorio atera dira, batez ere etorkizunean iker daitekeenari begira. Soziatiboaren eta instrumentalaren arteko nahasketa bezala definitu denari azalpen sakonagoa eman beharko zaio: nahasketa zerk eragin duen, noiz eta nondik zabaldu den, zein hedadura izan ote zuen. Interesgarria izan daiteke proposatutako atzizkien jatorrizko formen adibide gehiago lekukotzea eta balizko jatorrizko egitura haiek sakonago aztertzea. Era berean, interesgarria litzateke pluraleko forma bereizgarriak ez duten kasuen formak aztertzea, garai bereko zein beste garai batzuetako lekukotasunetan ager litezkeen adibide gehiago aurkituz, Betolaza eta Lazarragak oso adibide gutxi dakartzatelako. Arabatik irten gabe, pluraleko forma bereizgarriak ez duten atzizkien formak aurkitu dira Garzia de Albenizen lekukotasunean eta Laudioko doktrinan. Ostera, Gamizen bertsoetan ez da ezaugarri hau ager dezakeen kasurik ageri. Arabatik kanpo, Alkizako Irazustak ere fenomeno honen adibideak ageri ditu. Adibide gehiago lekukotu beharko lirateke kasu hauetan genitibo-atzizkia agertzea arkaismoa ala berrikuntza den ezagutzeko eta, ondorioz, genitibo-atzizkiaz pluraleko forma bereizgarria duten formak berrikuntza direnentz ezagutzeko.

Azkenik, zenbait atzizkietarako proposatu diren jatorrizko formen adibide gehiago lekukotu beharko lirateke hipotesi hau osatzeko. Adierazitako *-i-* horren galera gertatu bazen, noiz eta nondik hedatutako berrikuntza den ezagutzeko.

5. BIBLIOGRAFIA

- Agud, M. & Michelena, L. (1958). *Dictionarium linguae Cantabrigiae (1562); N. Landuchio*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Aldai, G. (2013). Sasiola vs. Lazarraga: Acerca del euskera del texto de Estibaliz Sasiola. *Lapurdum*, (17), 7-29.
- Altuna, F. (1995). Acto conetriciocoa eriotzaco orduracò: Garcia de Albeniz araiarraren araberezko eskuizkribua (1778). *ASFV*, 21 (1), 83-132.
- Anonimoa. (1858). *Doctrina cristina en el vascuence de LLodio, Provincia de Álava*. Londres: Billing. <http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k9658255s/f11.image> -tik jasoa.
- Añibarro, P. A. (1969). Gramática Bascongada. *ASJU*, 3 (1), 3-169.
- Arana Martija, J. A. (1986). Betolazaren "Doctrina Christiana". *Euskera: Euskaltzaindiaren lan eta agiriak* 31- 2 aldia, 505-526.
- Arrue, G. (1858). *Santa Jenobebaren bizitza*. L. Akesolok prestaturiko edizioa (1987), Klasikoak 8. Donostia: Erein.
- Azkue, R. M. (1923). *Morfología vasca*. Bilbao: Euskaltzaindia.
- Azkue, R. M. (1935). Evolución de la lengua vasca. *Euskera*, 57-120.
- Bilbao, G., Gómez, R., Lakarra, J. A., Manterola, J., Mounole, C., & Urgell, B. (2010). *Lazarraga eskuizkribua. Edizioa eta azterketa*. Vitoria-Gasteiz. http://www.ehu.es/monumenta/lazarraga/dokumentuak/A_testua_osorik.pdf -tik jasoa.
- Capanaga, M. O. (1656). "Exposición breve de la doctrina christiana". Bilbao.
- Erdozia, J. L. (2006). Arabako ekialdea eta Sakanako continuumaren azterketa diakronikoa. *FLV*, 38 (102), 233-254.
- Etxepare, B. (1545). *Linguae Vasconum Primitiae*. Bordele. <http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/btv1b8609513p/f7.image> -tik jasoa.
- Euskaltzaindia (1985). *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak (I)*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Goikoetxea, I. (1982). *Juan Bautista Gámiz Ruiz de Oteo. Poeta Bilingüe Alavés del Siglo XVIII*. Gasteiz: Arabako Foru Aldundia & Euskaltzaindia.
- Igartua, I. & Santazilia, E. (2013). Instrumentalaz gogoratuz, instrumentuaz haratago: kasuaren izaera tipologian eta euskararen bilakabidea. In I. Gómez, J. Gorrochategui, J.A. Lakarra & C. Mounole (arg.), *Koldo Mitxelena Katedraren III. Biltzarra* (pp. 227-244). Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU.
- Intxausti, J. (1994). *Euskara Araban*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Kintana, X. (2004). Joan Perez Lazarragakoren izkribuaren inguruan. *FLV*, 97, 581-595.
- Knörr, H. & Zuazo, K. (1998). *Arabako Euskararen Lekukoak. Ikerketak eta testuak*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Legebiltzarra.
- Lafon, R. (1955). Le verbe dans la Doctrina Cristiana de Betolaza (1596). *Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo"*, 2, 101-106.
- Lakarra, J. A. (1981). Barrutiaren edizio kritiko baterako. *ASJU*, 15 (1), 121-156.
- Lakarra, J. A. (1981). Betolazaren hiztegia. *ASJU*, 15 (1), 235-272.
- Lakarra, J. A. (1983). Oharrak zenbait arkaismoz. *ASJU* XVII, 41-68.
- Lakarra, J. A. (1984). Bizkaiera zaharreko ablatiboaz. *ASJU*, 18 (1), 161-193.
- Lakarra, J. A. (1986). Bizkaiera zaharra euskalkien artean. *ASJU*, 28 (3), 639-681.

- Lakarra, J. A. (1996). *Refranes y Sentencias (1596): ikerketak eta edizioa*. Bilbao: Euskaltzaindia.
- Lakarra, J. A. (2013). *Euskararen Gramatika Historikoa. (2013/14 ikasturtea)*. Argitaratugabeko Ikasteko Materialak.
- Larramendi, M. (1729). El imposible vencido. Arte de la Lengua Bascongada. Salamanca: Antonio Joseph Villagordo Alcaráz.
- Larramendi, M. (1745). Diccionario trilingüe del castellano, bascuence y latín. Donostia: Bartolomé Riesgo y Montero.
- Larramendi, M. (1969). Coreografía o descripción general de la Muy noble y Muy Leal provincia de Guipúzcoa, (J. I. Tellechea Idígoras, arg.). Donostia-San Sebastián: Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones.
- Leizarraga, J. (1571). *ABC edo Christinoen instructionea*. La Rochelle.
- Mitxelena, K. (1955). La doctrina cristiana de Betolaza (1596). *ASJU II*, 43-60.
- Mitxelena, K. (1964). *Textos Arcaicos Vascos*. Madrid: Minotauro.
- Mitxelena, K. (1978). Miscelánea filológica vasca I. *FLV*, 30 (29), 205-228.
- Mitxelena, K. (1981). Lengua común y dialectos vascos. *ASJU*, 15 (1), 289-313.
- Mujika, J. A. (1991). Gramatika egitura jakingarri batzuk. In *Memoriae L. Mitxelena Magistri Sacrum*, 2. bol. (1029-1052). Donostia: UPV/EHU.
- Salaberri Muñoa, P. (2002). *Iraupena eta lekukotasuna: Euskal Literatura idatzia 1900 arte*. Donostia: Elkar.
- Salaberri Zaratiegi, P. (1998). Arabako mugako nafar hizkeren inguruan. In I. Camino (arg.), *Nafarroako hizkerak. Nafarroako euskal dialektologiako jardunaldietako agiriak. Iruñea, 1997ko azaroa (24-28) (49-87 orr.)*. Bilbo: UEU.
- Salaberri Zaratiegi, P. (2004). Artatzako euskal testua: Transkripzioa eta hizkuntza azterketa. *FLV*, 36 (97), 537-554.
- Santoyo, J. C. (1972). *Viajeros por Alava. Siglos XV a XVIII*, Biblioteca Alavesa “Luis de Ajuria”, Gasteiz.
- Trask, R. B. (1997). *The Devil Hath Been Raised: A Documentary History of the Salem Village Witchcraft Outbreak of March 1692*. Danvers, Mass.: Yeoman Press.
- Ulibarri, K. (2010). “Viva Jesus” dotrina: edizioa eta azterketa. *ASJU*, 44 (2), 41-154.
- Ulibarri, K. (2015). *Dotrinazko sermoitegia: galduriko hizkerak eta dialektologia historikoa*. [Doktorego Tesia]. Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila. UPV/EHU.
- Urgell, B. (2006). Para la historia del sustantivo verbal en vasco. *ASJU*, 40 (1-2), 921-948. Número especial: J. A. Lakarra; J. I. Hualde (eds.), *Studies in Basque and historical linguistics in memory of R. L. Trask*.
- Zuazo, K. (1997). Euskara Araban. *Uztaro*, (21), 79-95.
- Zuazo, K. (1998). Betolatzaren hizkeraz. In H. Knörr eta K. Zuazo (Eds.), *Arabako Euskararen Lekukoak. Ikerketak eta testuak (71-86 orr.)*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Legebiltzarra.
- Zuazo, K. (1999). Arabako euskararen kokagunea. *FLV*, (80), 165-184.
- Zuazo, K. (2012). *Arabako Euskara*. Donostia: Elkar.
- Zuloaga, E. (2011). Bizkaiko jauntxoengatik inguruko herri literaturaz: Plentziako 1603ko hiru esaera zahar eta *Refranes y Sentencias*en jatorria, eta proposamen bat Arrasateko Erreketaren kantuez. *ASJU*, 45 (2), 53-69.